



**ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAK DEITUTAKO LEHIAKETAREN
KLAUSULA ADMINISTRATIBO BEREZIEN PLEGUA, PROZEDURA IREKIAZ
ESLEITZEARI BEGIRA, GILTZA ESKUAN ERAKOA, BI EGUZKI INSTALAZIO
FOTOVOLTAIKO HORNITU, JARRI, ABIARAZI ETA MANTENTZEA
KONTRATATZEKO**

ESPEDIENTE ZENB.:

EER/11/004-A

PROZEDURA IREKIA

Bilbon, 2011ko maiatzaren 24an
José Ignacio Hormaeche Azumendi jn.
EEEko kontseilari-zuzendari nagusia



**ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAK DEITUTAKO LEHIAKETAREN
KLAUSULA ADMINISTRATIBO BEREZIEN PLEGUA, PROZEDURA IREKIAZ
ESLEITZEARI BEGIRA, GILTZA ESKUAN ERAKOA, BI EGUZKI INSTALAZIO
FOTOVOLTAIKO HORNITU, JARRI, ABIARAZI ETA MANTENTZEA
KONTRATATZEKO**

ADJUDIKATZEKO ERA: Lehiaketa irekia.

ESPEDIENTE ZENB.: EER//11/004-A

A. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Energiaren Euskal Erakundea (EEE), honako helbide hau duena: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo. Bizkaia (Espainia).

- Pertsona arduraduna, teknikaria: Iñaki Boveda
- I.F.Z.: Q-5150001 E
- Telefonoa/faxa/posta elektronikoa: 94-403.56.56 / 94-403.56.99 / iboveda@eve.es
- Kontratatzailearen profila: www.eve.es

B. APLIKAGARRIA DEN ARAUBIDE JURIDIKOA

- Arautze armonizatuaren arabeko kontratua: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen (“SPKL”) 173. artikulua eta dagozkionak.
- Auzi administraziorekiko jurisdikzioa.

C. KONTRATUAREN HELBURUA

Bi (2) eguzki instalazio fotovoltaiko hornitu, jarri, abiarazi eta mantentze prebentiboa kontratatzea, giltza eskuan erakoa, hiru (3) urtekoa aldirako.

Planta 1: Subillabide industrialdea. Iruña de Ocan (Álava-Araba)

Planta 2: ZAISA industrialdea, Irunen (Gipuzkoa)

D. GAUZATZEKO EPEA

Kontratu honen xedea diren instalazioak egin eta eman behar zaizkio EEEri sei (6) hilabeteko gehieneko epean, kontratua sinatzen den egunetik kontatzen hasita.

E. JARRIKO DEN Wp BAKOITZAREN ETA URTEKO MANTENTZEAREN GEHIENEO PREZIOA

- **Jarriko den Wp bakoitzaren gehieneko kostua** ez da hiru (3) euro baino gehiago izango, BEZa gabe.
- Instalazio bakoitzaren **mantentze prebentiboa** hiru (3) urteko eperako ez da seiehun euro (600) baino gehiago izango urtean, BEZa gabe.

Baldintza horiek betetzen ez dituzten eskaintza guztiak baztertu egingo dira.

F. IZAPIDEA ETA PLEGUAK ESKURATZEKO BIDEA

- Ohiko izapidea.
- EEEren Kontratatzailearen Profila (www.eve.es)

G. PROPOSAMENAK JASOTZEKO AZKEN EGUNA

Eskaintzak edo proposamenak 2011ko uztailaren 15eko 12:00ak arte jasoko dira.



H. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA

Proposamenak, honako helbide honetan: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo.

I. BEHIN-BEHINEKO BERMEA

Ez dagokio.

J. BEHIN BETIKO BERMEA

Kontratuaren prezioaren ehuneko bosta (%5) izango den zenbatekoa (BEZa gabe).

K. GUTXIENEN BERMEAREN EPEA

Eguzki instalazio bakoitzari hiru (3) urteko gutxieneko bermearen epea ezartzen zaio.

L. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Ez dagokio.

M. PUBLIZITATEAREN GASTUAK

Ez dagokio.

N. ALDAGAIEN ONARPENA

Ez dagokio.

O. KAUDIMEN EKONOMIKOA, FINANTZARIOA ETA TEKNIKOA

Plegu honetako 2.5.1 (vi) eta (vii) klausulan adierazten den dokumentazioa aurkeztu behar da.

P. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

Esleipena erabakitzeke erabiliko diren irizpide orokorrak hauexek dira:

FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK		
Irizpidea	Deskribapena	Puntuak
1	<u>INSTALAZIOAREN ALDERDI TEKNIKOAK</u> Instalazioaren ezaugarri teknikoak Lan-metodologia Lan-taldea Jartzen diren bitarteko materialak Lanen planifikazioa eta lan horiek egiteko proposatzen den egutegiaren koherentzia Proposatzen diren hobekuntzak	15
2	<u>BERMEA</u> Bermeari dagozkion epeak (instalazio osoa, alderanzgailuak eta moduluak) Erantzuteko epeak Bermean aurreikusten ez diren gastuak	20
FORMULA MATEMATIKO BIDEZ EBALUATU AHAL DIREN IRIZPIDEAK		
3	<u>GAUZATZEKP EPEA</u> Instalazioak gauzatzeko epea laburtzea	15
4	<u>PREZIOA</u>	40



	Jarriko den Wp prezioa zuzenduta	
5	<u>MANTENTZEA</u> Urteko prezioa eta aurreikusten ez diren gastuak	10
GUZTIRA		100

Epeari, prezioari eta mantentzeari lotutako irizpideak balioesteko, honako formula honen arabera egingo da:

Gauzatzeko epea

Gehienez 15 puntu, 100 puntu artean

Gauzatzeko epeari dagozkion hamabost (15) puntuak honako era honetan esleituko dira:

Gauzatzeko epea 6 hilabetekoa	3 puntu
Gauzatzeko epea 5 hilabete eta erdikoa	6 puntu
Gauzatzeko epea 5 hilabetekoa	9 puntu
Gauzatzeko epea 4 hilabete eta erdikoa	12 puntu
Gauzatzeko epea 4 hilabete edo gutxiagokoa	15 puntu

Jarriko den Wp prezioa zuzenduta

Gehienez 40 puntu, 100 puntu artean

Aurkeztuko diren eskaintzen batez besteko preziora gehien hurbilduko den eskaintzari 20 puntu emango zaizkio, Wp zuzendu bakoitzeko (baldin eta panelek perdoi edo tolerantzia negatiboa badute).

20 puntu lortuko duen eskaintzaren aldean, beheko ehuneko puntu bakoitzeko puntu bat gehituko da; guztira, gehienez, 40 punturaino.

20 puntu lortuko duen eskaintzaren aldean, gorako ehuneko puntu bakoitzeko puntu bat kenduko da; guztira, gutxienez, 0 punturaino.

Beheko edo gorako ehuneko puntuak esleitzeko, aterako diren kantitateak handiagora edo txikiagora biribilduko dira ehuneko puntu hurbilenera. Kantitatea ehuneko puntuaren erdia izango balitz, gorako ehuneko puntura biribilduko litzateke.

Mantentzea

Gehienez 10 puntu, 100 puntu artean

- Urteko prezioa (euro), instalazioaren berme aldian [Gehienez 4 puntu]

Urtean 300 €baino gutxiago	4 puntu
Urtean 300 €eta 400 €artean	3 puntu
Urtean 400 €eta 500 €artean	2 puntu
Urtean 500 €eta 600 €artean	1 puntu



- Urteko prezioa, instalazioaren berme alditik at (%) [Gehienez 2 puntu]

Prezioaren aldean, mantentzearen prezioa berme aldian %5 baino gutxiago gehitzen bada	2 puntu
Prezioaren aldean, mantentzearen prezioa berme aldian %5 eta %10 artean gehitzen bada	1 puntu
Prezioaren aldean, mantentzearen prezioa berme aldian %10 baino gehiago gehitzen bada	0 puntu

- Lekualdaketarako gastuak (bai/ez) [Gehienez 2 puntu]

Barnean badaude	2 puntu
Barnean ez badaude	0 puntu

- Langileei dagozkien gastuak (bai/ez) [Gehienez 2 puntu]

Barnean badaude	2 puntu
Barnean ez badaude	0 puntu

Q. ZIGORTZEA

Plegu honetan aurreikusten direnak.

R. LUZAPENA

Ez dagokio.

S. LANAK ZATIKA JASOTZEA

Ez dagokio.

T. PREZIOAREN ORDAINKETA

- (i) Giltza eskuan erako instalazio fotovoltaikoak hornitu, jarri eta abiarazteko lanen ordainketak transferentzi bidez egingo dira, honako modu honetan:

- Kontratua sinatzean, lehen ordainketa egingo da, egitasmoaren guztizko prezioaren %25 izango dena.
- Ekipoak jasotzean eta instalazio guztien muntaketa fasea hastean, %30 ordainduko da.
- Instalazioaren muntaketa amaitzean, %30 ordainduko da.
- Gainerako %15a, instalazioa behin-behinekoz jasotzean. Gehienez ere, aldi horrek bi (2) hilabete iraungo du, muntaketa amaitzen den egunetik kontatzen hasita, betiere, atzerapenak zerikusirik ez badu instalatzailearekin.

Zatikako ordainketa horietako bakoitza hogeita hamar (30) egun naturaleko epean egingo da, esleipendunak modu egokian Erakunde Kontratatzaileari dagokion faktura ematen eta azken horrek onartzen duen egunetik kontatzen hasita.

- (ii) Mantentze prebentiboari dagozkion kantitateak urtean egingo diren lau (4) ordainketen bidez kitatuko dira, adostutako mantentze lanak egin ondoren eta Erakunde Kontratatzaileak txosten teknikoak eta faktura jaso eta gero.



Zatikako ordainketa horietako bakoitza hogeita hamar (30) egun naturaleko epean egingo da, esleipendunak modu egokian Erakunde Kontratatzaileari dagokion faktura ematen eta azken horrek onartzen duen egunetik kontatzen hasita.

U. HIZKUNTZA BALDINTZAK

Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko 6. artikuluan eta azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean (euskararen erabilera arautzekoa) eta hura garatzen duen araudian xedatutako hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren mende dago.

Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea kontratuaren gauzatze baldintzetako bat da. Hala, bada, betetzen ez bada, kontratu honetako edozein klausula ez betetzeagatik aurreikusi diren ondorioak aplikatuko dira; ez bada, gauzatu beharreko kontratuak berezko dituen ezaugarriek eskatu egiten dutela nahitaez beste hizkuntza bat edo batzuk modu eksklusiboan erabiltzea. Dena den, neurri horrek kontratuaren baldintza orrian edo pleguan agertu beharko du.

V. KONTU FISKALEI, INGURUMENARI, EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI, ENPLEGUA BABESTEARI, LANEKO BALDINTZEI ETA LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Kontratu honetan interesa duten enpresek fiskaltasunari buruzko informazioa lor dezakete Foru Aldundietan.

Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza saileko Lana eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzan egongo da enplegua babesteari, laneko baldintzei nahiz laneko baldintzei buruzko gaietan indarrean diren xedapenei buruzko informazioa. Horiek guztiak gehi kontratuaren agirietan aurreikusi klausula gehigarriak aplikatzekoak izango dira kontratua exekutatzeko orduan.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumena eta Lurraldearen Antolamendua saileko Ingurumen sailburuordetzan egongo dira –IHOBEn sozietate publikoaren bidez– kontratua exekutatzeko aplikatzekoak diren ingurumen auziei buruzko indarreko xedapenen informazioa eta kontratuko agirietan aurreikusi klausula gehigarriak.

Horrela, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundearen aurkituko dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasun gaietan indarrean diren eta kontratua exekutatzeko orduan aplikagarriak diren xedapenei buruzko informazioa.

W. FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI LOTUTAKO DOKUMENTAZIOA (B GUTUN AZALA) JENDAURREAN ZABALTZEKO LEKUA, EGUNA ETA ORDUA

Plegu honetako karatularen A Atalean adierazten den EEEn bulegoan. Eguna eta ordua lizitatzailerik jakinaraziko zaizkie, haiek jakinarazpenak jasotzeko emango duten fax zenbakira bidaliz eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

X. FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU AHAL DIREN IRIZPIDEEI LOTUTAKO DOKUMENTAZIOA (C GUTUN AZALA) JENDAURREAN ZABALTZEKO LEKUA, EGUNA ETA ORDUA



Plegu honetako karatularen **A Atalean** adierazten den EEEn bulegoan. Eguna eta ordua lizitatuzaileei jakinaraziko zaizkie, haiek jakinarazpenak jasotzeko emango duten fax zenbakira bidaliz eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.



1. XEDAPEN OROKORRAK

1.1. Erakunde kontratatzailea

Erakunde kontratatzailea (aurrerantzean “**Erakunde Kontratatzailea**”) Plegu honetako karatularen **A Atalean** adierazten da; eta haren datuak, helbidea eta telefonoa atal horretan ere azaltzen dira.

1.2. Kontratuaren araubide juridikoa

Lizitazio honen kontratuak izaera pribatua du. Kontratuaren prestatze eta esleitzeari dagokionez, administrazio klausula berezien plegu honetako **B Atalean** adierazten dena beteko da. Kontratuaren betetze eta deuseztatzeari dagokion araubidea zuzenbide pribatuarena izango da.

Jurisdikzio Zibileko Epaitegiak izango dira (SPKLren 21.2 artikulua) kontratu hau prestatzean, esleitzean, interpretatzean, betetzean eta amaitzean sor daitezkeen auziak erabakitze eskudunak, eta bi aldeak borondatez jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mendean; baita Plegu honen karatularen **B Atalean** adierazten dena kontuan hartuta ere Era berean, berariaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketen bestelako foroiei.

1.3. Kontratuaren helburua

Bi (2) eguzki instalazio fotovoltaiako hornitu, jarri eta abiaraztea, giltza eskuan erakoa, eta haren mantentze prebentiboa hiru (3) urteko eperako kontratatzea, Plegu honen karatulako **C Atalean** adierazia.

Planta 1: Subillabide industrialdea. Iruña de Ocan (Álava-Araba)

Planta 2: ZAISA industrialdea, Irunen (Gipuzkoa)

Lizitatuzaileek eskaintza orokorra egin dezakete, lote bakoitzari dagokion eskaintza azalduz, edo lote bakar baten gaineko eskaintza egin dezakete.

1.4. Jarriko den Wp bakoitzaren gehieneko prezioa eta kontratuaren prezioa

Jarriko den Wp bakoitzaren prezioa Plegu honen karatulako **E Atalean** adierazitako zenbatekoa izango da.

Instalazio bakoitzaren mantentze prebentiboa hiru (3) urteko eperako ez da seiehun euro (600) baino gehiago izango urtean, BEZa gabe.

Kontratuaren prezioa esleipenaren ondorioz aterako dena izango da, eta diru-sail independente gisa sartuko du BEZa. Enpresa esleipendunak ordainduko ditu gainerako gastuak, kontratuan azaltzen diren lanak behar bezala egiteko, eta beraz, Erakunde Kontratatzaileak ez ditu ordainduko, **I. eranskinean** ageri den Zehaztapen Teknikoen Txostenaren arabera.



1.5. Prezioen berrikuspena

Prezioen berrikuspenari dagokionez, Plegu honen karatulako **I Atalean** zehazten dena beteko da, eta bertan adieraziko da prezioaren berrikuspena egingo den ala ez, eta hala bada, aplikagarria izango den formula.

1.6. Kontratuaren gehieneko iraupena

Lanak egiteko gehieneko iraupena Plegu honen karatulako **D Atalean** zehazten dena izango da. Nolanahi ere, lizitatuzaileek lanak egiteko epeak laburtzeko proposamena egin dezakete euren eskaintzetan, eta proposamen horiek balioetsiko dira **P Atalean** ezarritakoari jarraiki.

Karatularen **D Atalean** hala aurreikusten baldin bada, kontratua luza daiteke, lanak egin ahal izateko, hasierako epea aldatuz. Luzapen hori kontratazio organoarekin adostuko da eta esleipendunak bete beharko du..

1.7. Zehaztapen teknikoak eta informazio gehigarria

Plegu honetan eta Zehaztapen Teknikoen Txostenean, honekin batera doan **I. eranskinean** azaltzen direnak, adierazten den moduan egingo dira kontratu honi lotutako lanak.

Aipatutako **I. eranskinean** kontratu honi buruzko informazio gehigarria azaltzen da.

2. LIZITAZIOAREN KLAUSULA BEREZIAK

2.1. Adjudikatzek era eta izapidea

Kontratua prozedura irekiaren bidez esleituko da, eta Plegu honen karatulako **F Atalean** adierazitako eran egingo da izapidea eta beste bideratze batzuk.

2.2. Lehiaketaren dokumentazioa eta informazioa

Plegu honen karatulako **F Atalean** adierazitako lekuan kontsultatu ahal dira kontratu, plegu eta gainerako gaiet buruzko informazio guztia. Lehiaketaren inguruko dokumentazioaz eta kontratuaz sor daitezkeen zalantzak Erakunde Kontratatzaileak argituko ditu.

Erakunde Kontratatzaileak enpresa lizitatuzaileen eskura jartzen dituen dokumentu horiek lehiaketaren xede diren eskaintzak prestatzeko baino ez dira erabiliko. Hori horrela, enpresa lizitatuzaileek konpromisoa hartzen dute beste zeregin batzuetarako ez erabiltzeko dokumentazio eta informazio hori.

2.3. Bermeak

2.3.1. Behin-behinekoa

Plegu honen karatulako **I Atalean** hala aurreikusten baldin bada, lehiaketan parte hartzeko ezinbesteko baldintza izango da behin-behineko bermea aurkeztea enpresa lizitatuzaileen aldetik, karatulan zehazten den lizitazioaren aurrekontuaren zenbatekoa izango duena.

Enpresa lizitatuzaileek berme hori esku dirutan, Zor Publikoaren balioetan, abal bidez edo kaudizio aseguru-kontratu bitartez aurkeztu ahalgo dute.

Behin-behineko bermea aldi baterako enpresa-elkartean parte hartzen duten enpresa guztiek edo haietako betek ezar dezakete; betiere, eskatzen den diru kantitate guztia jarritz, eta aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten enpresa guztiak era solidarioan bermatuz.



Behin-behineko berme hori esleipendunak ez diren enpresa lizitatzaileriei itzuliko zaie, lehiaketaren esleipena egin ondoren.

Enpresa lizitatzaileriek jarriko duten behin-behineko bermea gauzatuko da baldin eta arrazioa justifikatu gabe eskaintza baztertzen badute kontratua adjudikatu aurretik, edo esleipendun hautatuko denak behin betiko bermea gauzatzen ez badu, edo hari egotzi zaizkion zioengatik kontratua sinatzen ez badu.

2.3.2. Behin betikoa

Plegu honen karatulako **J Atalean** hala aurreikusten baldin bada, eskaintza ekonomiko egokiena aurkeztuko duen lizitatzailerak behin betiko bermea jarri beharko du Erakunde Kontratatzailearen aurrean, kontratua adjudikatzeko prezioaren ehunekoaren baliokidea izango dena, edo karatulan zehaztuko den zenbatekoa izango duena.

Enpresa lizitatzailerak berme hori abal bidez aurkeztu ahal izango du. Abal hori **III. eranskinean** azaltzen den ereduaren arabera aurkeztuko da.

Eskaintza ekonomiko egokiena aurkezten duen lizitatzaileraren erruz betetzen ez bada behin betiko bermea, Erakunde Kontratatzaileak ez du esleituko lehiaketa edo kontratua haren alde, eta plegu honetako 2.11 klausulan edo atalean ezarritakoa beteko da.

Behin betiko bermeak honako egoera hauei egingo die aurre: a) esleipendunak kontratuan dituen betebeharrak berandu betetzea edo behar bezala ez betetzea; b) esleipendunak kontratua ez betetzea, eta hala badagokio, ezarriko diren zigorrak; c) kontratuan hala zehazten denean, aurreikusitako berme aldi hornituko diren ondasun edo materialen akatsak.

2.4. Proposamenen aurkezpena

2.4.1. Lekua eta epea

Prozeduran interesa duten enpresek astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara, aurkeztu beharko dituzte proposamenak Erakunde Kontratatzailearen bulegoan eta Plegu honen karatulako **G Atalean** zehazten da noiz izango den azken eguna aurkezteko.

Lizitatzailerak postaz bidaltzen badu eskaintza, bidalketa posta-bulegoan zer egunetan egin zuen kreditatu beharko du, eta kontratazio-organoari jakinarazi beharko dio, egun bertan, eskaintza bidali duela. Ez badira bi baldintza horiek betetzen edo bidali izanaren jakinarazpena baldintza honetan adierazitako gehienezko epea igarota egiten bada, ez da eskaintza onartuko.

Aipatutako datatik zazpi (7) egun igaro ondoren, eta dokumentazioa jaso ez bada, aurrerantzean ez da inola ere onartuko.

Proposamenak hiru (3) hilabetek epean mantendu beharko dira.

2.4.2. Proposamenei buruzko oharra

Proposamena aurkeztu ondoren, lizitatzailerak ezin izango du erretiratu, behar bezala justifikatuko den ezinbestekoa izan ezik.

Enpresa lizitatzailerak bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du; eta bakarka egin badu, ezin izango du aldi baterako beste enpresa batekin aurkeztu; ezta aldi baterako enpresa elkarte batean baino gehiagotan egon ere. Atal honetan azaltzen dena bete ezean, enpresak aurkeztuko dituen proposamenak baztertuko dira.

Kontraesan, dokumentu gabezia edo falta, modu egokian irakurtzeko, eta, beraz, eskaintza behar bezala balioesteko, akatsak edo ezabaketak dituzten proposamenak ez dira onartuko.

Enpresa lizitatzailerak eskatzen zaien dokumentazioa, baldin eta dokumentazio hori notariala bada, Lege eta Arau Notarialak eskatzen duen eran eta haren arabera aurkeztuko da. Dokumentuak administratiboak badira, aldiz, jatorrizkoan edo kopian zein fotokopian aurkeztu ahal izango dira, behar bezala egiaztatuz.



Dokumentuak euskaraz edo gaztelaniaz idatziak aurkeztu ahal izango dira. Enpresa atzerritarrek bi hizkuntza horietako batera itzulita aurkeztuko dute dokumentazioa.

Eskaintzarik eginez gero, enpresariak baldintzarik gabe onartuko dituzte Plegu honetako klausula guztiak, eta eskaintza horri ardurapeko adierazpen bat erantsiko diete, Erakunde Kontratatzailearekin kontratatzeko baldintza guztiak betetzen dituztela esanez.

2.4.3. Proposamenak baztertzekeo zioak

Lehiaketatik kanpo geratuko dira, Erakunde Kontratatzaileak behar bezala arrazoititu eta gero, honako egoera honetan leudekeen proposamenak:

- a) Dokumentazioa epez kanpo aurkeztea.
- b) Plegu honetan eskatutako kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa edo gaitasun profesionala ez aurkeztea.
- c) Proposamen ekonomikoa bat baino gehiago aurkeztea, bakarka edo beste enpresa lizitatzailerik batzuekin batera.
- d) Plegu honetan edo zehaztapen teknikoen pleguan eskatzen diren baldintzak ez betetzea.
- e) SPKLeak eskatzen dituen baldintzak ez betetzea.

Baztertuko diren proposamenak dokumentazio administratiboaren gutun-azala zabaltzeko aktan jaso edo islatuko dira, baztertzekeo zioak azalduz.

2.5. Proposamenen edukia

Aurkeztuko diren proposamenak, hasiera batean, hiru gutun-azalak itxietan egongo dira lakratuak edo zigilatuak auzerik daitezkeenak, lizitatzailerik edo bere ordezkariak sinatuak eta gutun-azal bakoitzaren kanpoko aldean ondoko datu hauek idatziko dira:

- (i) Lehiaketaren izena eta hari dagokion edukia.
- (ii) Lizitatzailerikaren izena eta haren ordezkaria.
- (iii) Jakinarazpenak egiteko helbidea, posta elektronikoaren helbidearekin batera,
- (iv) Telefono eta fax zenbakiak.

Enpresa lizitatzailerik kontratazioa xede diren bi (2) loterako eskaintza aurkeztuz gero, B gutun-azalari dagokion dokumentazioa (formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei lotutakoa) eta C gutun-azalari dagokion dokumentazioa (formula bidez kuantifikatu ahal diren irizpideei lotutakoa) lote bakoitzerako aurkeztu beharko du, gutun-azala ezberdinetan eta kanpotik ondo identifikatzeko moduan idatzita.

2.5.1. (A) gutun-azala: Dokumentazio administratiboa

(A) gutun-azalean hauxe idatziko da:

“(Kontratuaren izena)

A gutun-azala: Dokumentazio administratiboa.

Lizitatzailerik (...).”

Eusko Jaurlaritzako kontratisten erregistroan erregistratuta dauden lizitatzailerik eta Estatu lizitatzailerik eta enpresa sailkatuen erregistro ofizialean erregistratuta daudenean nahikoa izango dute erregistratuta izatearen ziurtagiriaren kopia aurkeztea. Horrekin batera, ardurapeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, erregistroan adierazitako datuak baliozkoak direla eta indarrean daudela bermatuz, **V. eranskinarekin** batera.

Adierazitako erregistroetan erregistratuta ez dauden enpresariak, jarraian aipatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, indarrean dagoen legeriari jarraiki, jatorrizko kopian



edo kopia egokian, edo notarioaren aurrean behar bezala egiaztatutako jatorrizkoaren zein kopia egokiaren fotokopia:

(i) Lehiatzeko gaitasuna:

a) Pertsona juridikoak diren enpresarien jarduteko gaitasuna kreditatzeko, haien eraketa-eskritura edo aldaketakoa aurkeztu behar dute. Eskritura horrek merkataritza-erregistroan inskribatuta egon beharko du, baldin eta hari aplikagarri zaion merkataritza-legediak hala eskatzen badu.

Hala ez balitz, jarduteko gaitasuna kreditatzeko, eraketaren eskritura edo agiria, estatutuak edo sorrera-egintza aurkeztu beharko dituzte. Bertan, jarduera arautzeko arauak agertu beharko dira, eta behar bezala inskribatuta egon beharko dira kasuan kasuko erregistro publikoan.

Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko herrialdeetako enpresaburuak badira, nahikoa izango dute merkataritza edo lanbide erregistroan inskribatuta daudela kreditatzea.

Gainerako enpresaburu atzerritarrek euren herrialdeek Espainian duten misio diplomatiko iraunkorrak edo kontsul-etxeak emandako txostena aurkeztu behar dute.

b) Bakarka edo bere izenean aurkezten bada enpresaburua, parte hartzeko eskabidea edo eskaintza sinatzen duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionala espainiarra bada. Atzerriko pertsona fisikoen kasuan, pasaporte edo indarreko agiri baliokidea aurkeztu beharra dago.

(ii) Ahalmena:

Lizitzailearen ordezkariaren identitatea egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia aurkeztuko da (NANa espainiarrentzat eta pasaporte edo indarreko agiri baliokidea atzerritarrentzat), eta merkataritza-erregistroan alta emanda dagoela ziurtatzen duen dokumentua, ordezkatzeko duen pertsonaren izenean jarduteko baimentzen duena.

(iii) Lehiatzeko debekurik ez duen ardura-adierazpena:

Ardura-adierazpena SPKLen 130.1c artikulua xedatutakoari jarraiki, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 49.1. artikuluan araututako debeku, ezgaitasun edo bateraezintasuneko kausarik betetzen administrazio publikoekin kontratatzeko. Horretarako, Plegu honetako **II. eranskina** bete eta sinatuko da.

Ardura-adierazpen horretan, berariaz azaldu beharko dute egunean betetzen dituztela zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak. Horrez gain, hautatutako enpresaburuak alderdi horiek betetzen dituela kreditatu beharko du. SPKLen 130.1c artikulua xedatutakoari jarraiki

(iv) Aldi baterako enpresen elkarreak:

Lizitazioan parte hartzeko, zenbait enpresarik aldi baterako enpresa-elkarrea eratzten badute, enpresa bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, Plegu honetako aurreko puntuetan adierazitakoaren arabera, karatulan besterik esaten ez bada. Gainera, horrelako kasuetan honako datu hauek emango dira:

- a) Enpresen elkarrea osatzen duten pertsonen izenak eta zirkunstantziak.
- b) Enpresa elkartean bakoitzak duen parte hartzea.
- c) Haien guztien izenean ordezkaritza izango duen pertsona edo erakundea, jabetzaren aurrean, kontratua indarrean dagoen bitartean, Erakunde Kontratatzaillearen aurrean arduraduna izanik.



Lizitazioa aldi baterako enpresa elkarte bati esleituko balitzaio, Erakunde Kontratatzailearen aurrean egiaztatu beharko lukete haren eraketa eskritura publikoaz.

(v) Behin-behineko bermea:

Plegu honen karatulako **I Atalean** hala eskatzen baldin bada, behin-behineko bermeari lotutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

(vi) Kaudimen teknikoa:

Lizitatuzaileek lehiaketa edo kontratu honen inguruko lanekiko esperientzia frogatu beharko dute, honako bide hauen bitartez:

- a) Azken bost (5) urtean lehiaketa honen antzeko lan eta proiektu burutuen deskribapena; baita horien zenbatekoa, datak eta izandako onuradunak ere. Lehiaketa honetan parte hartzeko, azken bost (5) urtean eskatzen den antzeko hamar (10) eguzki-instalazio fotovoltaiko, gutxienez, egin behar izan dute.
- b) Lizitatuzaileak egiaztatu beharko du dituen profesionalen titulazio homologatu eta egokia dela Espainian aritzeko; betiere Plegu honetan eskatzen diren lanak egiteko behar den titulazioei dagokienez. Horretarako, langileen batez bestekoaren zerrenda erantsiko du, azken bost (5) urteko titulazioak jasoko dituen.

(vii) Kaudimen ekonomiko-finantzarioa:

Lizitatuzaileek duten kaudimen ekonomiko-finantzarioa honako dokumentu hauen bidez egiaztatuko dira:

- a) Azken ekitaldikoari dagozkion urteko kontuak, behar bezala egiaztatu edo kreditatuta merkataritza-erregistroan, merkataritza elkarte baldin bada, edo Pertsona Fisikoen Gaineko Errenta Aitorpena eta Ondarearen Gaineko Errenta Aitorpena, pertsona fisikoak baldira.
- b) Negozioen guztizko kopuruari buruzko adierazpena.
- c) Finantza-erakundearen txosten egokia.

(viii) V. eranskina behar bezala aurkeztuko da.

(ix) Kaudimena kanpo-baliabideekin integratzea.

Kontratu hau egiteko nahiko kaudimena duela egiaztatzeari begira, kontratista beste erakunde batzuen kaudimen eta bitartezkoen balia daiteke, erakunde horiekin izango dituen harreman juridikoak edozein direla, betiere kontratua gauzatzeko erabiliko direla egiaztatuz.

Kontratua gauzatu ahal izateko kontratistak bitarteko horiek izango dituela egiaztatze aldera, eta azpikontratistek egingo dituzten lanen zatiek ez dutela kontratuaren prezioaren %50 baino gehiago izango, azpikontratazioari buruzko konpromisoa erantsi beharko da, honako baldintza hauekin:

- a) Hasieran dokumentu pribatuan aurkeztu ahal izango da. Hala ere, enpresa behin-behineko esleipenduna izango balitz, eskritura publikoan dokumentatuko litzateke.
- b) Azpikontratatzeke asmoa duen kontratuaren zatia eta kontratuaren prezioaren aldean zer ehuneko den adierazi beharko dira.



- c) Kontratuaren esleipenduna izanez gero, azpikontratatuak dituen enpresen eskura behar beste baliabide jarriko ditu kontratuaren zati hori egiteko.
- d) Etorrizuneko azpikontrata izenaren bidez identifikatuko da, edo enpresa profilaren bidez. Geroago, esleipendunak beste enpresa batzuk azpikontratatu nahi baditu, SPKLen 210.2 artikulua a) eta c) letretan xedatutakoa beteko ditu.

(x) Esleitzeko lehentasunak

Kontratazioan interesa duen enpresak nahi baldin badu –betiere, horretarako baldintza egokiak gertatzen badira– hari aplikatzea 2.9 klausulan jaso diren esleitze-lehentasunak, hizpide dugun gutun-azalean ondoko agiri hauek sartu beharko ditu:

- a) Klausula aipatuko a) idatz-zatiko lehentasunari dagokionez, aurkeztu beharko dira Gizarte Segurantzako TC2 agiria –enpresan diren langileei buruzko egiaztagiria– eta enpresak sinatutako adierazpena, zeinean zehaztuko den 100eko 33ko edo gehiagoko ezgaitasun-ehunekoa duten langileen kopurua eta berorien nortasun agiriak.
- b) Klausula aipatuko b) idatz-zatiko lehentasunari dagokionez, enpresak aurkeztu beharko du lan elkartuko kooperatiba eta bigarren mailako edo maila txikiagoko kooperatiba izatearen egiaztagiria.
- c) Klausula aipatuko c) idatz-zatiko lehentasunari dagokionez, enpresak aurkeztu beharko du dagokion erregistro ofizialean erregistraturik egotearen egiaztagiria.

(xi) Enpresa atzerritarren jurisdikzioa

Enpresa atzerritarren jurisdikzioari dagokionez, enpresaburu atzerritarrek adierazpen bat aurkeztu beharko dute, eta bertan Espainiako epaitegi eta araubide juridikopean soil-soilik izateko onartuko dute, kontratuaren gorabehera zuzenetik edo zeharkakotik sor daitezkeen interpretazioen aurrean, eta hala denean, lizitatuzaileari dagokion atzerriko jurisdikzioa bazter uzteko prest dagoela adieraziz.

Hainbat enpresak parte hartu nahi dutenean aldi baterako enpresa elkartean baturik, enpresa horietako bakoitzak egiaztatu beharko du, aurreko klausuletan araututakoaren arabera, jarduteko bere gaitasuna eta bere kaudimena.

Lizitatuzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emana duten enpresek (i) eta (ii) azpiataletan adierazten diren zirkunstantziak egiaztatzeke, nahikoa izango dute erregistroaren egiaztagiria aurkeztea edo sailkatzeke ziurtagiri erkidea. Horrekin batera, lizitatuzailearen ardura- adierazpena aurkeztuko da, ziurtagirian azaltzen diren zirkunstantzietan aldaketarik ez dela izan adieraziz.

2.5.2. (B) gutun azala: Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideen dokumentazioa

(B) gutun-azalean hauxe idatziko da:

“(Kontratuaren izena)

Lote zenb. (...). (Lotearen izena)

B gutun-azala: Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideen dokumentazioa
Lizitatuzailea (...).”

Lizitatuzaileak honako dokumentazio hau aurkeztuko du, adierazten den hurrenkeran:

- a) Instalazioaren ezaugarri teknikoak. Egingo diren lanen deskribapena. Horren barruan izango dira jarriko diren ekipo nagusien ezaugarriak.



- b) Lan metodologia. Jarraituko den lan metodologia aurkeztuko da, bai Erakunde Kontratatzailearen aurrean izango dena, bai lanak gauzatzeko erabiliko dena.
- c) Kontratua gauzatzen arituko den lan taldea. Plegu teknikoan azaltzen diren lan guztiak egiteko esperientzia egiaztatua eduki beharko du lan taldeak. Esperientzia hori frogatzeko, lan taldea osatzen duten kide bakoitzaren curriculum vitae aurkeztuko da.
- d) Bitarteko materialak. Enpresa eskaintzaileak egitasmoa gauzatzeko erabiliko dituen bitarteko materialak deskribatuko dira (kudeaketa administratiboa, ibilgailuak...).
- e) Proposatzen diren hobekuntzak. Dokumentu honetan zehazten diren baldintzei egindako hobekuntzak adieraziko dira.
- f) Instalazioaren mantentze zentroa. Mantentzeaz arduratuko den enpresa identifikatuko da (**I. eranskinaren** taula), azken honen aldetik konpromisoa hartuta mantentzea egiteko dokumentua erantsiz, baldin eta lizitatzaila, azkenean, behin betiko esleipenduna bada.
- g) Planifikazioa. Lizitatzailak planifikazio eta lan egutegi zehatza aurkeztuko ditu. Bertan, besteak beste, eskaintzan azaltzen diren mugarri nagusien hasiera eta amaieraz gain, gauzatzeko bideak ere agertuko dira. Horrekin batera, jardueren zehaztapena eta beste lan batzuekiko loturak jasoko dira planifikazioan. Kontuan hartu beharko da klimatologiaren eragina. Hori guztia kronograma batez lagunduta joango da. Aintzat hartuko da proposamenaren koherentzia.
- h) Bermea. Zenbait elementuren bermeak identifikatuko dira; adibidez, instalazioarena, bere osotasunean, eta eskulanarena, alderantzikagailuena, moduluena. Edozein kasutan, Plegu honen **K Atalean** adierazten diren gutxieneko epeak aintzakotzat hartuko dira. Era berean, honako atal hauek zehaztuko dira: matxurarik izanez gero, (plantaren funtzionamenduari eragiten dionean eta eragiten ez dionean), aurre egiteko epea, sortu daitezkeen gastuak adieraziz, eta horiek ordaintzea nori dagokion, lizitatzailari edo Erakunde Kontratatzaileari.
- i) Azpikontratazioak. Kontratu honen lan zati batzuk gauzatzeari begira, lizitatzailak lan horiek azpikontratatzeko asmorik badute, kontratuaren zein zatiri dagokion azpikontratazio hori adierazi beharko dute. Horrekin batera, azpikontratazio horren balioa edo zenbatekoa eta azpikontratazioaren izena edo profil profesionala. Geroago egin dezaketen edozein aldaketa Erakunde Kontratatzailearen oniritzia beharko du, Plegu honetako 4.10 klausulan xedatzen den moduan.

Gutun-azal honetan ez da sartuko proposamen ekonomikoa, ezta formula bidez kuantifikatu ahal den beste dokumentazio bat ere.

Azken batean, Plegu honen karatularen **P Atalean** zehazten den ildotik, formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideak ebaluatzeko dokumentazio guztia aurkeztu beharko da. Horrezaz gain, lanak hobeto egiteko, bestelako informazio gehigarri edo egitasmoari egiten zaizkion hobekuntzak ere aurkez daitezke.

2.5.3.(C) gutun azala: Formula bidez ebaluagarriak diren irizpideen dokumentazioa

(C) gutun-azalean hauxe idatziko da:



“(Kontratuaren izena)
Lote zenb. (...). (Lotearen izena)
C gutun-azala: Formula bidez ebaluagarriak diren irizpideen dokumentazioa
Lizitatzailerak (...)”.

(C) gutun-azalak proposamen ekonomikoa eta mantentzearena baino ez ditu jasoko. Hori guztia, lizitatzailerak edo haren ordezkariak sinatuta eta sail bakoitzerako. Horrekin batera, **IV. eranskinean** agertzen den ereduaren arabera. Horrekin batera, proposamen ekonomikoa eta mantentzearen ezaugarri eta kontzeptuei lotutako deskribapen zehatza azalduko da.

2.6. (A) gutun azalaren irekiera eta sailkapena. “Dokumentazio administratiboa”

Behin proposamenak aurkezteko epea amaiturik, Erakunde Kontratatzailerak aztertuko eta kalifikatuko ditu denbora eta modu egokian haien eskaintza egin duten lizitatzailerak guztiek “A” gutun-azalean (dokumentazio administratiboa) aurkeztu dituzten agiriak.

Hautematen bada konpon daitezkeen akatsak edo ahazteak daudela agiri aurkeztuetan, enpresa erasanean gertakari aipatuaren berri emango zaie posta arruntez edo ofizioz ala posta elektronikoz edo faxez. Enpresek gehienez hiru (3) eguneko epea izango dute akatsak edo ahazteak zuzentzeko Erakunde Kontratatzaileraren aurrean. Aurrekoa gorabehera, aipatutako zirkunstantziak kontratatzaileraren profilean argitaratuko dira.

Aurreko klausulan aipatu konpontzea alde batera utzita, gaitasun- eta kaudimen-baldintzak egiaztatze aldera, kontratazio-mahaiak eska diezazkioke enpresari egiaztasun agiri edo agiri aurkeztuei buruzko azalpenak edo, bestela ere, eska diezazkioke agiri osagarriak aurkez ditzala. Enpresa erasanean bost eguneko epea izango ditu azken horiek aurkezteko. Agiri osagarriak, bidenabar, ezin izango dira aurkeztu hurrengo paragrafoan aipatzen den onartze-adierazpena gauzatu ondotik.

Behin agiriak kalifikatuta eta, hala badagokio, akatsak edo ahazteak konponduta, Erakunde Kontratatzailerak proposatuko dio kontratazio-organoari agiri honetan aurreikusitakoaren arabera kaudimena frogatu duten eta lizitazioan onartuak izango diren hautagaien zerrenda. Proposamen horretan, halaber, kontratazio-mahaiak adieraziko du zer enpresa baztertu diren eta zergatik.

Enpresa parte-hartzaileen eskura izango da eskaintza aurkezteko onartuak izan diren enpresen, enpresa baztertuen eta baztertzearren arrazoiak ekartzen dituen zerrenda, eta kontratazio-mahaiaren aurrean kontsulta dezakete. Kontratazio-mahaiak, nolahi ere, zerrenda aipatua argitaratu dezake, aipatu organoaren iragarki-oholean iragarkiak jarritz edo sistema elektronikoa, kontratatzaileraren profilean edo prozeduran egoki diren beste bide batzuen bidez.

Edonola ere, aipatu zerrenda publikoki irakurriko da eskaintza ekonomikoak jendaurrean irekitzeko ekitaldian.

2.7. (B) gutun azalaren irekiera eta sailkapena. “Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei buruzko dokumentazioa”

(A) gutun-azalak ireki ondoren, eta hala badagokio, akatsak zuzendu eta gero, Erakunde Kontratatzailerak eratu da jendaurrean izango den saio batean, **V. Atalean** adieraziko den leku, egun eta orduan, eta eskaintzak irekiko dira jendaurrean honako helburu hauekin:



- a) Lizitzaileei onartutako proposamenen berri ematea; baita baztertutakoena eta baztertzeko arrazoiak zeintzuk izan diren. Horren berri emateaz gain, onartutako enpresen zerrenda Erakunde Kontratzaileak duen kontratzailearen profilean ere argitaratuko da, eta edozein bidez jakinaraziko zaie onartuko ez diren enpresei.
- b) (B) gutun-azala (formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei lotutako dokumentazioa) ireki eta irakurtzea, erakunde kontratzaileak ekitaldian izango diren lizitzaileak edo haien ordezkariak gonbidatuko ditu gutun-azalak aldatu gabe daudela egiaztatuz.

Egokitzat jotzen baldin badu, lizitazioan parte hartzeko onartuko diren enpresak zehaztutakoan, Erakunde Kontratzaileak B gutun-azalak bidaliko dizkio sailaren zerbitzu teknikoei, azken honek ebaluatzeko dokumentazio hori. Hain zuzen ere, aurkeztuko diren proposamenen azterketaz zerbitzu teknikoak arduratuko dira. Plegu honetako karatularen **P Atalean** adierazitakoari jarraiki, lan hori egiteari begira, behar diren txostenak eta aholkularitza eskatu ahal izango ditu.

Gainera, lizitzaileek aurkeztutako dokumentazioaren inguruan argibideak eskatu ahal izango dizkie.

Hurrengo fasera pasatzeko, lizitzaileek lortu behar dute, gutxienez, formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideen guztizko puntuazioaren %50. Puntuazio hori lortzen ez duten lizitzaileak lizitazioetik kanpo geratuko dira eta, horrenbestez, ez da haien (C) gutun-azala irekiko.

Ebaluazioaren emaitza publikoa eta argitaratuko da Erakunde Kontratzailearen iragarki-oholean iragarkiak jarritz, edo sistema elektronikoen bidez (kontratzaile-profilaren edo prozeduran egoki diren beste bide batzuen bidez).

Edonola ere, aipatu emaitza publikoki irakurriko da, C gutun-azala jendaurrean irekitzeko ekitaldian.

2.8. (C) gutun azalaren irekiera eta sailkapena. “Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei buruzko dokumentazioa”

Eskaintzak publikoki irekitzeko toki, egun eta ordu zehaztua –inoiz ez dena izango proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita bi (2) hilabeteko epea baino geroago– Erakunde Kontratzaileak jakinaraziko du, ekitaldi publikoan eta APKLAOko 83. artikuluan ezarri baldintzatan, enpresa parte-hartzaileen kopurua eta haien izena. Zehaztuko ditu, baita ere, enpresa onartuak, baztertuak eta ez-onartzearen zioak.

Horren ondoren, ahoz jakitera emango da (B) gutun-azalak irekitzearen emaitza; gutun-azalean aurkeztu agiriaren ebaluazioaren emaitza.

Ondoren, (C) gutun-azala (formula bidez kuantifikatu ahal diren irizpideei lotutako dokumentazioa) irekiko da eta lizitzaile onartuek aurkeztu eskaintzak irakurriko.

2.9. Eskaintzak ebaluatzea

(C) gutun-azala jendaurrean zabaldu ondoren, Erakunde Kontratzaileak gutun-azal horri dagokion dokumentazioa kanpoko organo bati bidali ahal izango dio, eta hala badagokio, onartutako enpresen B gutun-azalaren ebaluazioari buruzko emaitza. Kontratzaierako aholkularitza lanak egiten dituen organo horrek txosten tekniko globala egingo du eskaintza



guztien artean; betiere, gutun-azal horien inguruko ebaluazioak aintzat hartuta.

Era berean, Erakunde Kontratatzaileak behar beste txosten eskatu ahal izango du, kontratua era egokienean esleitzeari begira.

Aurrekoa egin eta gero, Erakunde Kontratatzaileak dagokion proposamen egingo du, eskaintzak balioesteko irizpideak eta Plegu honetako karatularen **P Atalean** azaltzen diren lehentasunak kontuan hartuz.

i- Esleitze-lehentasunak: Negoziazioaren ondorioz gertatu diren baldintzei so, bi proposamen edo gehiago onuragarrienetan berdinduta badaude eta (A) gutun-azalean aurkeztu badituzte 2.5.1 klausulan aurreikusitako egiaztagiria, hauek izango dira esleitzean lehentasuna izango duten enpresak:

- a) Gaitasun teknikoa egiaztatzeko unean, langileen artean 100eko 33 edo gehiagoko minusbalioetasuna duten langileen ehunekorik handiena duen enpresa, betiere, ehuneko aipatua baldin bada enpresako langileen 100eko 2tik gorakoa.
- b) Lan elkartuko kooperatibak eta bigarren mailako edo maila txikiagoko kooperatibak.
- c) Pertsona baztertuak laneratzearen eta sustatzearen alde lan egiten duen enpresa, beti ere, enpresak konpromisoa hartu badu lanpostuen gutxienez ehuneko 30a betetzeko jarraian aipatuko ditugun taldeetako pertsonekin, zeinen egoera egiaztatu beharko duten gizarte-zerbitzu publiko eskumendunek. Hauek dira taldeak:

Txertaketako errenta minimoak, haren antzeko izaerako edo izaera bereko sariak jasotzen dituzten pertsonak, betiere, gogoan harturik autonomia-erkidegoetan izen desberdina izan dezaketela.

Aurreko paragrafoan aipatu sariak jaso ezin ditzaketen pertsonak, egoitza- edo erroldatze-epe eskatua bete ez izanagatik, edo sariaren unitate jasotzailea osatzeko epea bete ez izanagatik, edo legez ezarritako jasotze-epe maximoa agortu izanagatik.

- Hamazortzi urtetik gorako eta hogeita hamar urtetik beherako gazteak, adingabeak babesteko erakundeetatik datozenak.
- Droga-menpekotasun edo alkoholismo arazoak eduki eta errehabilitazio- ala gizarteratze-prozesuetan sarturik dauden pertsonak.
- Espetxeratuak –zeinen espetxe-egoerak aukera ematen dien lanean aritzeko– baldintzapean askatuak eta preso ohiak.
- Pertsona minusbaliatuak.

Lehentasunak aplikatzeko orduan, lehenetsiko da aurreko ezaugarrietatik bat baino gehiago biltzen dituen enpresaren proposamena. Aldi baterako enpresa-elkarteei dagokienez, lehentasunak zenbatetsiko dira lizitatzailerik bakoitzak enpresa-elkartean duen ehunekoaren arabera.

Irizpide horiek guztiak aplikatuta ere, proposamenen arteko berdinketa hautsi ez bada edo, aurreko paragrafoan aipatutakoarekin bat etorritik, enpresa bat berak ere ez badu esleitze-lehentasunik, kontratua esleitzeko zaio –betiere, esleitze-irizpide ugari badaude– guztietan pisu gehien duen irizpidean puntuaziorik handiena jaso duen proposamenari. Irizpide hori aplikatuta ere berdinketa hausten ez bada, irizpide bakoitzari eman zaion garrantziaren ordenari erreparatu zaio. Aitzitik, prezioa baldin bada eskaintzak balioesteko irizpide bakarra, berdinketa zozketa bidez hautsiko da.



ii- Argibideak. Aukeratuko den proposamena formulatu aurretik, Erakunde Kontratatzaileak eskatu ahal izango dizkie enpresei argibideak, idatziz emango dituzten argibide horiek eskaintzak hobeto ulertzeko izango dira. Nolanahi ere, argibideak ematean ez da onartuko eskaintzan egindako proposamena aldatzea enpresa lizitatzaileren aldetik. Hori horrela, informazio hori gorabehera, hasierako proposamenaren edukia izango da aintzat hartuko dena.

iii- Balio ezohikoak edo gehiegizkoak. Erakunde Kontratatzaileak proposatutako eskaintzaren batek edo batzuek balio ezohikoak edo gehiegizkoak dituztela uste badu, haren berri emango dio kontratazio organoari, eta egokitzen joko dituen behar beste txosten aurkeztuko ditu.

Proposamen batek balio ezohiko edo gehiegizkoak izango ditu honako baldintza hauek betetzen baditu: onartutako proposamenen batez bestekoaren aldean ehuneko hogeit gutxiago denean.

Proposamen batek balio ezohiko edo gehiegizkoak dituela adierazi baino lehen, harekin zerikusia duten pertsonen informazioa eskatu eta eman beharko litzaieke. Gainera, dagokion zerbitzu teknikoaren aholkularitza emango zaio eta kontratazio mahaiak txostena egingo luke, eta lizitazioan enpresa lotuek eskaintza desberdinak aurkeztu badituzte, kontuan hartuko da SPKLen 129.4 artikuluko bigarren paragrafoan eta APKLAOren 86.1 artikuluan xedatutakoa.

Lizitazio iragarkia Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen bada, erabakia justifikatu beharra dago Europako Ekonomia Erkidegoko kontratu publikoetarako Aholku Lantaldearen aurrean.

Lizitatzaileren justifikazioa entzun ondoren eta aipatutako txostenak aintzat hartuta, kontratazio-organismoak uste badu proposamena betetzea ezinezkoa dela, balio ezohiko edo gehiegizkoak edukitzeagatik, proposamena bazter utziko du.

2.10. Proposamenen sailkapena eta eskaintza ekonomiko egokiena aukeratzea

Erakunde Kontratatzaileak kontratazio-organismoari aurkeztutako proposamen zerrenda helaraziko dio, balio ezohiko edo gehiegizkoak dituela jo ez diren proposamenak, hain zuzen ere, SPKLen 136 artikulua araberak, behetik gorako sailkapenari jarraiki, agirian zehazten diren irizpideekin bat etorritik, eta onartutako eta baztertutako proposamenak adieraziko dizkio.

Goraxeago aipatutako sailkapenarekin batera, aktak, egindako txostenak, eskaintza ekonomiko egokienaren identifikazioa eta komenigarritzat jotzen diren oharren ere bidaliko dira.

Eskaintza ekonomiko egokienaren identifikazioak ez dio ekarriko inolako eskubiderik aukeratuko den lizitatzaileri Erakunde Kontratatzailearen aurrean.

2.11. Aukeratutako esleipendunak agiriak aurkeztea esleipena egiteko

Araua orokor gisa, adjudikatzeko hautatutako lizitatzailera aukeratzeko, kontratazio-organismoak Erakunde Kontratatzaileak egindako proposamenari egingo dio kasu. Horrela ez balitz, kontratazio-organismoak bere erabakia arrazoitu beharko du, eta hala badagokio, proposamenen behin betikoa egingo du.



Hamar (10) egun balioduneko epean –eskakizuna jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita– eskaintza ekonomiko egokiena aurkeztutako lizitatzailleak edo enpresak ondoko hauek egiaztatzeke agiriak aurkeztu beharko ditu:

- a) Zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta izatea.
- b) Behin betiko bermea eratu izana.
- c) Hala badagokio, 4.8. klausulan zehazten diren aseguru polizak edo ziurtagiriak.
- d) Azpikontratazio-konpromisoa aurkeztu duen enpresa formalizatu beharko da berriz ere konpromiso hori.
- e) Esleipenduna aldi baterako enpresa elkarte izango balitz, enpresa elkarte eratzeko eskritura publikoa aurkeztu behako luke (SPKLen 48. artikulua), eta haren iraupena kontratua amaitu artekoa izango da.
- f) Enpresaren kontratatzeke gaitasunaren beste egiaztagiria batzuk, edo kontratazio-organoak eskatzen dizkion eta enpresak kontratua gauzatzeko erabiliko dituela hitz eman duen baliabideak egiazki dituela erakusten duten egiaztagiria.

Zerga-betebeharrak beteta izatea egiaztatzeke, lizitatzailleek ondoko agiri hauek aurkeztu behar dituzte (APKLAOren 13 eta 15. artikulua):

- a) Jarduera Ekonomikoen Zergaren azken ordainagiria edo, enpresa sortu berria bada eta oraindik ez badu Jarduera Ekonomikoen Zerga ordaindu beharrik izan, zerga horretan alta eman izanaren agiria. Edonola ere, alta ematearen agiria aurkeztu beharko da ordainagiri emana ez bada jaso jardueraren epigrafean. Agiri horietan jaso beharko da kontratuko xedeari dagokion epigrafea, zeinak enpresa gaitzen duen diharduen lurralde-eremuan aritzeko. Horrez gainera, aurkeztu beharko da enpresaren erantzukizuneko adierazpena, erakusten duena enpresak ez duela baja hartu Jarduera Ekonomikoen Zergaren matrikulan. Aurkezten badira Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialeko egiaztagiria eta enpresaren erantzukizun-adierazpena –egiaztatzen duena egiaztagirian jasotako inguruabarrak aldatu ez direla– ez dira aurkeztu beharko zergan bajan eman ez izanaren agiria izan ezik gainerako beste guztiak.
- b) Zerga Administrazioako organo eskumendunak emandako egiaztagiria positiboa, APKLAOren 15.2 artikuluan jasotako baldintza formalak biltzen dituena. Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistroan izena emanda egoteari buruzko indarreko egiaztagiria edukitzea egiaztatzen edo egiaztatu dutenek ez dute egiaztagiria hori aurkeztu beharrik, betiere, indarraldi aipatuak dirauen bitartean eta aldatu ez badira dagokion egiaztagirian jasotako inguruabarrak. Enpresak, bidenabar, bi egitate horiek berariaz adierazi beharko ditu kontratua formalizatzeke agirian.

APKLAOren 13. artikuluan jaso diren zerga-betebeharrei buruzko aitortpen edo agiri guztiak ala horietako batzuk aurkeztera derrigorturik ez dagoen enpresak baldintza hori egiaztatu beharko du erantzukizun-adierazpenaren bidez.

Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak bete izana egiaztatuko da agintaritzaren administratibo eskumendunak igorritako egiaztagiria positiboaren bidez, zeinak beteko dituen APKLAOren 15.2 artikuluan jasotako formazko baldintzak. Salbuespenen bat kontuan hartu behar bada, hura egiaztatu beharko da erantzukizun-adierazpenaren bidez. Enpresak prozeduran barrena egiaztatu badu Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistroan izena emanda dagoela, ez du egiaztagiria hori aurkeztu beharrik, betiere, indarraldi aipatuak irauten duen bitartean eta aldatu ez badira dagokion egiaztagirian jasotako inguruabarrak. Enpresak, bidenabar, bi egitate horiek berariaz adierazi beharko ditu kontratua formalizatzeke agirian.



Behin betiko bermea eratu eta egiaztatuko da Plegu honetako **III. eranskinean** dagoen ereduaren arabera.

Adierazitako epean eskakizunak betetzen ez badira, lizitatzailerak bere eskaintza bazter utzi duela ulertuko da, eta, beraz, dokumentazio berdina eskatuko zaio hurren lizitatzailerari, sailkatutakoaren hurrenkera kontuan hartuta.

2.12. Kontratua esleitzea

Aurreko atalean aipatutako dokumentazioa jaso ondoren, kontratazio-organoak bost (5) asteguneko epean esleitu du kontratua.

Esleipenak arrazoiturik egon behar du, eta bi (2) hilabeteko epean egin ezean, C gutun-azalak zabaltzen diren egunetik kontatzen hasita, enpresa lizitatzailerak euren proposamenak erretiratzeko eskubidea izango dute.

Esleitu gabe uztea. Kontratazio organoak ezin izango du lizitazioa esleitu gabe utzi, baldin eta pleguan zehaztutako irizpideekin bat datoren eskaintza onargarriren bat bada.

Esleipenari uko egitea eta prozedura deuseztatzea. Esleipena egin aurretik, kontratazio organoak, espedientean behar bezala arrazoituta eta interes publikoaren arrazoiak tartean daudenean, kontratuaren esleipenari uko egin ahal izango dio, edo kontratua prestatzeko edo esleitzeko prozeduraren inguruko araei lotutako arau hauste gertatuz gero, esleitzeko prozedura deuseztatu ahal izango du.

Horrelako kasuak gertatuko balira, EEEK lizitatzailerak bakoitzari emango lioken kalte-ordaina hirurehun (300) eurokoa izango litzateke

2.13. Esleipenaren jakinarazpena eta argitaratzea

Hautagaiei eta lizitatzailerari esleipenaren berri emango zaie, eta, aldi berean, kontratatzaileraren profilean argitaratuko da. Horretaz gain, SPKLen 138.2. artikuluan ezarritako zenbatekoa gaindituz gero, DOUEn eta Estatuko kontratazio-plataforman edo baliokidea den sistema baten edo BOEn argitaratuko da.

Jakinarazpena hainbat bide erabiliz egin daiteke, betiere, jasotzaileak hartu edo jaso izanaren egiaztatzea izateko moduan, eta honako azalpen hau eramango du:

- a) Baztertutako lizitatzailerari dagokienez, haien hautagaitza baztertzeko zioen azalpen laburtua.
- b) Esleitzeko prozeduran baztertutako lizitatzailerari dagokienez, haien eskaintza baztertzeko zioen azalpen laburtua.
- c) Nolanahi ere, esleipendunaren izena, aukeratutako esleipendunaren proposamenaren funtsezko ezaugarriak eta abantailak azalduko dira, gainerako eskaintzen aldean.

Motibazioari aplikagarria izango zaio SPKLen 137. artikuluan jasotzen den konfidentzialtasunari buruzko salbuespena.



Jakinarazpena zein kontratatzailearen profilean adierazi behar da kontratua formalizatzeko epea, SPKLen 140. artikuluan xedatutako betez.

3.KONTRATUA FORMALIZATZEA ETA PUBLIZITATEA

Epea. Kontratua hamabost (15) egun baliouduneko epea igaro aurretik formalizatu behar da, esleipena lizitatzaleei eta hautagaiei jakinarazten zaien eginetik kontatzen hasita.

Horrelako kasuetan, kontratazio-organoak esleipendunari eskatuko dio kontratua formalizatzeko bost (5) eguneko epean, hori egiteko eskatzen zaion egunaren biharamunean kontatzen hasita.

Formalizatu baino lehen ezin izango da kontratua gauzaten hastea, SPKLen 97. artikuluan aurreikusten diren kasuetan izan ezik.

Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da. Alde biek eska dezakete eskritura pribatu bihurtzea, eta hori egiteko gastuak eskatzen duen aldeak ordaindu beharko du. Kontratua formalizatzeko ekarriko dituen gastu eta zerga guztiak esleipendunak ordainduko ditu.

Formalizazioaren ondorioak. Zehazten diren epeetan formalizatzen ez bada, kontratazio organoari egotzi dakizkiokeen kausak tarteko, kontratistari kalte-ordaina ordainduko zaio, atzerapen horrek ekar ditzakeen ondorioengatik.

Esleipendunak ezin badu, hari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua epe zehaztuaren barruan formalizatu, kontratazio organoak behin behineko bermearen zenbatekotik behin betikoa behinekoa baitu ahal izango du.

Kontratuaren formalizazioa edo sinatu beharreko kontratu guztiak argitaratzeari edo publizitatea emateari dagokionez, SPKLen 138. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuko da, aplikagarria baldin bada.

4. ERAKUNDE KONTRATATZAILEAREN ETA BEHIN BETIKO ESLEIPENDUAREN ARTEKO KONTRATUAREN OINARRIZKO BALDINTZAK

4.1 Kontratua gauzatzea

a) Kontratua klausula eta pleguetan ezarritakoari atxikita beteko da, eta kontratazio-organoak, honen ordezkariak edo kontratuaren arduradunak esleipendunaren esku utz ditzakeen interpretazio jarraibideen arabera.

b) Kontratua esleipendunaren arrisku eta zoriaz beteko da.

c) Esleipendunak bere gain hartuko du garatutako lanen eta burututako eginkizun eta zerbitzuen kalitate teknikoaren ardura, baita Erakunde Kontratatzailearentzat edo hirugarrenentzat kontratua betetzean gerta daitezkeen hutsegite, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrekin eragindako ondorioen erantzukizuna ere.

d) Kontratua behar bezala betetzeko, esleipendunak konpromisoa hartzen du informazio osagarria eta laguntza teknikoa emateko (dokumentuak eta mota guztietako informazioa).

e) Lanak egiten diren bitartean, kontratuaren aplikazio zuzenaren eta istripu edo kalteen, pertsonen, materialeen eta hirugarrenei gerta dakizkienak, ardura esleipendunarena izango da.



f) Kontratua indarrean dagoenean eta kontratua amaitu ondoren, esleipenduna derrigortuta dago isilpeka gordetzera kontratuaren helburuekin zerikusia duten datu eta aurrekariak, bereziki jakinak eta agerikoak ez direnak, baita kontratua bete ahala ezagut ditzakeenak ere.

g) Erakunde Kontratatzaileak ez dio ordainduko esleipendunari kontratuan zehaztuta ez dagoen ezein lan edo kontratazio-organoak edo kontratuaren arduradunak alde aurretik baimendu ez duen ezein lan.

h) Kontratua amaitzen denean, Erakunde Kontratatzaileak kontratu honen xedea diren lanak jasotzeko ekitaldi formala egingo du. Une horretatik aurrera, Plegu honetan aurreikusten den bermearen epea jarriko da indarrean.

4.2. Kontratua aldatzea

a) Erakunde Kontratatzaileak kontratua alda dezake, SPKLen I Liburukiaren V. Tituluak xedatzen duenari jarraiki eta lege horren 272. artikulua dioena betez.

b) Esleipendunak ezin izango du inolako aldaketarik egin kontratuaren xedeari dagokionez, alde aurretik adostasunez egin ez bada, eta hala badagokio, kontratazio-organoak ezarritako aurrekontuaren gainean. Erakunde Kontratatzailearen oniritzia edo baimena ez duten aldaketek erantzukizuna ekarriko diote kontratistari, eta horiek eragin ditzakete gastuak esleipendunaren kontura joango dira.

4.3. Prezioaren ordainketa

a) Esleipendunak Erakunde Kontratatzailearen adostasunarekin burututako eta emandako lanengatik ordainsaria jasotzeko eskubidea izango du, lanei dagozkien fakturak aurkeztuta.

b) Plegu honetako karatulan adierazten da prezioaren ordainketa nola egingo den.

c) Inola ere ezingo da ordainketarik egin kontratua formalizatu arte.

d) Kontratuaren arduradunak emandako berariazko baimena jaso ezean, esleipendunak ez du egindako hobekuntzak kobratzeko eskubiderik.

e) Plegu honetan jasotzen den bezala, Erakunde Kontratatzaileak esleipendunari ezarri ahal dion zigor ekonomikotik prezioa kentzeko eskubidea du.

4.4. Bermearen gutxieneko epea

Esleipendunak hornituko dituen ondasunak edo materialak haren jabetzakoak direla, hirugarren aldeko zerga edo kargetatik libre daudela eta akatsik gabekoak direla. Horretaz gain, jabetza industrial/intelektualari lotutako eskubideen inguruko legeria betetzen dituela eta kalitate eta segurtasun aldetik indarrean dauden arau guztiak betetzen dituela ere bermatu beharko ditu.

Gutxieneko berme aldia hiru (3) urtekoa izango da, kontratuaren prestazioa behin betiko jasotzen den egunetik kontatzen hasita. Berme aldi horretan, adostutako kalitate baldintzak ez betetzearen ondorioz, materialen konponketarik egin behar izanez gero, esleipendunaren ardura izango litzateke.



Aipatutako konponketaren bat egin beharko balitz, berme aldia eten egingo litzateke, konponketa egiten den bitartean.

Esleipendunak bermea betetzen ez badu, Erakunde Kontratatzaileak eskubidea izango du ordaindu gabe dituen zenbatekoak ez ordaintzeko; baita abalak gauzatzeko eta kontratua bertan behera uzteko ere. Gainera, esleipendunak dagokion kalte-ordaina ordaindu beharko dio.

Berme aldia igaro ondoren, eta Erakunde Kontratatzaileak esleipendunari jakinarazi ez badio lanak egitean akats, kalte edota arazorik, kontratua deuseztatuko da eta esleipendunaren ardura izango da; baldin eta agerian ez diren akats edo arazoak ez badira. Horrelakoetan, esleipenduna izango litzateke arduraduna, berme aldia igarota ere.

4.5. Epeak eta berandutzeagatiko zigorrak

a) Esleipenduna derrigortuta dago kontratua Plegu honetako karatulan finkatutako epeetan gauzatzera; baita proposamen teknikoarekin batera aurkeztutako lan-plangintzan jasotzen dena ere.

b) Esleipenduna edozein epeetan berandutu egin dela jotzeko, ez da beharrezkoa izango Erakunde Kontratatzaileak aldeztu aurretik ohartarazpenik egitea. Atzerapen horiei dagozkien zigorrak Erakunde Kontratatzaileak ezarriko ditu automatikoki.

c) Azken epea amaitu eta esleipenduna berandutu egin bada berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla eta, Erakunde Kontratatzaileak adostutako azken prezioaren %20ko zigorra ezar diezaioke.

Zigorren zenbatekoak ez du kanpo uzten Erakunde Kontratatzaileak esleipendunaren berandutzeagatik sortutako kalte-galerak direla kausa eska dezakeen kalte-ordaina, ez eta Erakunde Kontratatzaileak kontratua suntsiarazteko duen eskubidea ere.

d) Era honetako zigorrak ezartzeko prozeduran esleipendunari alegazioak egiteko aukera eman beharko zaio derrigorrez.

4.6. Akatsez betetzea edo zatika bete gabe uztea

a) Erakunde Kontratatzaileak zehaztuko du esleipendunak egindako lana gauzatzeko eta betetze-aldinari begira ezarritako preskripzioekin bat datorren ala ez, eta behar izatekotan, kontratatutako zereginak bete ditzala edota harrera aldian igarritako akatsak konpon ditzala eskatuko dio. Zuzenketa horiek egiteko epea hamabost (15) egunekoa izango da gehienez ere.

b) Egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako zereginekin, esleipendunari egotz dakizkiokeen akatsak edo hutsegiteak medio, Erakunde Kontratatzaileak lan horiek errefusatu eta ordainketa egitetik salbuetsita geratzeko aukera izango du, eta horrekin batera, kontratua bera indargabetu ahal izango du, eta esleipendunari, zigor gisa, adostutako azken prezioaren %20 eskatu ahal dio.

Zigor horien barruan ez daude, kalte-ordain moduan, Erakunde Kontratatzaileak jasotzeko eskubidea izan dezakeen diru kantitatea, esleipendunak epeak eta beste ez betetzeagatik sor daitezkeen kalteen ondorioz.



4.7. Esleipendunaren betebeharrak

i- Lan arriskuen prebentzioa

Esleipendunak bete eta bere ardurapeko langileei betearaziko dizkie lan legeriak arriskuen inguruan xedatutako arau guztiak; baita aplikagarria zaien Lan Ituna, eta bereziki, Lan Arriskuen Prebentzioaz diharduen azaroaren 8ko 31/1995 Legeak dioena bete eta betearaziko du.

ii- Betebehar laboral eta sozialak

a) Esleipendunak, esleitu zaion lana egiteko kontratatzen dituen langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia eta Gizarte Segurantzari, ezinduen integrazio laboralari eta lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudiak bete behar ditu. Gizarte-formazioarekin zerikusia duten azken araudi horien kasuan, azpikontratatuak –halakorik izanez gero– bere langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia beteko duela ziurtatu behar du esleipendunak.

b) Kontratu hau betetzeko aplikagarria diren heinean, kontratistak edo esleipendunak espresuki adierazi behar du higie, segurtasun eta ingurumen alorreko araudi eta legeak bete eta betearazteko bitartekoak, gaitasuna eta ezagutza dituela, eta kontratua betetzean horrelako gaien inguruan gerta litezkeen erreklamazioei aurre egiteko konpainiak ez du inolako ardurarik.

c) Kontratistak bere menpeko langile guztiei babesteko ekipo homologatuak eman behar dizkie, kontratuan aurreikusten diren lanen segurtasunak edo arriskuak hala eskatzen badu, aplikagarria izan dakioken lan arriskuak prebenitzeko planaren arabera. Horrekin batera, langile horiek ekipoak behar bezala erabiltzeko prestakuntza jaso dutela bermatu behar du.

d) Kontratista behartuta dago lana baldintza duinetan egiten dela bermatzera, bai bere enpresan, bai hark azpikontratutako enpresetan (halakorik izanez gero). Horrez gain, langileei dagokien sektoreko hitzarmenak beteko dira, batez ere pertsonalaren subrogazioari dagokienez.

e) Lanei atxikitako beharginek kontratistaren menpe jardungo dute, eta honek enpresariari dagozkion eskubide eta betebeharrak izango ditu beharginen gainean.

f) Kontratu hau sinatzeagatik Erakunde Kontratatzaileak ez du inolako betebehar eta erantzukizunik izango gizarte eta lan betebeharren inguruan, legez kontratistak bere menpeko langileekin dituenak, alegia. Nolanahi ere, kontratistak konpromisoa hartzen du Erakunde Kontratatzaileari erreklamaziorik ez eskatzeko, haren langileek edo beste batek aipatutako betebeharrak izan ditzaketean arazoan aurrean.

g) Orokorrean, kontratistak aurre egin beharko die enplegatzaileri gisa dagozkion betebeharrei, bai eta kontratistak edo honen azpikontratistek langileekin dituzten lan-harremanak edo bestelakoak erregulatu eta garatzen dituzten arauak betetzetik datozkienei ere, eta Erakunde Kontratatzaileari ez zaizkio leporatuko horietako edozein ez betetzeak sor ditzakeen isun, zigor edo bestelako erantzukizunak.

Edozein kasutan, kontratistak oso-osorik ordainduko dio Erakunde Kontratatzaileari. Plegu honetako betebeharrak ez betetzeak zehaztuta daukan kalte-ordaina, nahiz eta ebazpen judicial edo administratiboak ezarritakoa izan.

h) Erakunde Kontratatzaileak hala eskatzen badio, kontratistak dokumentatuta egon daitezkeen betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentu guztiak aurkeztuko dizkio. Aurkezten ez badio edo justifikatu gabeko luzapena gertatzen bada, kontratuan ezarritako betebehar bat ez



dela betetzen ulertuko da, eta, beraz, Erakunde Kontratzaileak kontratua bertan behera uzteko eskubidea izango du.

i) Kontratua iraugita, ezin izango dira inola ere Erakunde Kontratzailearen langile bihurtu kontratuan zehaztutako zereginetan jardun duten beharginak.

j) Kontratistari egokituko zaizkio, eta bere kontura joango dira, kontratua betearazteak ekarri ahal dizkion kostu guztiak.

k) Behar bezala justifikatuta ez dauden atzerapenak edo dokumentazioa ez aurkezteak ekarriko du kontratua ez betetzea, eta, beraz, Erakunde Kontratzaileak bertan behera utz dezake kontratua.

iii- Segurtasun eta osasunari buruzko betebeharrak

Indarrean dagoen legeria betetzeko xedez, aipatutako Segurtasun- eta Osasun-plan horretan neurri eta jarduera guztiak kontuan hartu beharko ditu esleipendunak, eraikuntza zuzenaren arauen eta agiri hauetan zehazten diren baldintza eta eskakizunen arabera.

- Esleipendunak obran izango diren pertsona guztien segurtasuna zaintzeko behar diren neurriak eta programak eduki, ezarri eta ikuskatu beharko ditu, bai lan-jardunaren orduetan bai lan-jardunaren orduetatik kanpo. Era berean, segurtasun- eta osasun-planean finkatutako neurriak eta programak ere aplikarazi beharko ditu.

- Obrara behar bezala egokituko den segurtasun- eta osasun-plana proposatu beharko da, eta hala badagokio, onartu egingo da. Horrekin batera, lantokian edo obran gorabehera edo gertaera liburua izan beharko da, aipatutako 1627/1997 Errege Dekretuak eskatzen duen moduan.

Goraxeagoko klausulan aipatzen den erantzukizun-salbuestea gorabehera, klausulan ezarritakoa ez betetzeagatik Erakunde Kontratzaileari erantzukizun zibil eta administratiboren bat egotziko balitz, erantzukizuna kontratistak beregain hatu beharko du, kontratistak sinatutako aseguru-polizetan aseguratutako kapitalen kargura, eta hala badagokio, bermeen kargura edo obra-ziurtapenaren kenketaren bidez.

iv- Ingurumenari buruzko betebeharrak

Esleipendunak eta bere ardurapeko azpikontratek egingo dituzten lan guztietan saihestuko dituzte kalte edo eragin kaltegarria ingurumenean, animalietan eta landaretan, eta egin beharreko lanen ondorioz eragingo diren gorabehera edo kalteak ekiditeko edo murrizteko erabaki edo neurri guztiak hartuko ditu.

Ingurumen alorrean agintari eskudunek emandako eta ezarritako lege, araudi eta gomendio guztien arabera egingo ditu lan guztiak esleipendunak. Horretaz gain, Erakunde Kontratzaileak eman ditzakeen arau guztiak ere beteko ditu, eta bete ezean, esleipenduna bera izango da arduradun bakarra.

v- Hirugarrenen baimenak

Kontratua sinatu aurretik, kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren baimen eta lizentziak izapidetu eta emanda egongo dira Erakunde Kontratzailearen aldetik.

Kontratua amaitu eta gero, egin beharreko izapide administratibo guztiak esleipendunaren kontura joango dira, Erakunde Kontratzailearekin lankidetzan.



4.8. Aseguruak

1.- Kontratuaren loturak irauten duen bitartean, esleipendunak edo kontratistak jarraian agertzen diren aseguruak izenpetu eta indarrean mantendu beharko ditu onartutako finantza-kaudimena duten konpainiekin, eta esleipendunak edo bere azpikontratistak eragin ditzakeen kalteen estalduraren barruan izango dute Erakunde Kontratatzailea. Kontratistak honako aseguru hauek eduki behar ditu:

a) Erantzukizun zibil profesionala

Erantzukizun zibil profesionalaren aseguru honek diharduten profesionalak beste bati eragin ahal dizkioten kalte edo zauriak, pertsonalak edo materialak, estaltzeko bermea eman behar du. Horrekin batera, aseguruak bere zereginak egitean, Erakunde Kontratatzailearen langileak eta ondasunak edo haren menpeko egon daitekeen eta erantzukizuna duen besteren batek izan dezaketen akats profesionalen edo arduragabekeriaren ondorioz, ondareari eragin ahal zaizkion kalteak ere kontuan hartuko ditu aseguru horrek. Aipatutako aseguruak, besteak beste, erantzukizun zibil patronala (lan istripuak) produktua eta lanen ondorengokoena bildu beharko ditu eta horren gutxienezko estaldura 600.000 eurokoa izango da ezbehar bakoitzerako. Erantzukizun zibil patronalari dagokionez, gutxienezko estaldura 150.000 eurokoa izango da kasu bakoitzeko. Lanak direla eta, esleipendunak salgaiak edo ekipoak garraiatu behar izanez gero, garraioari lotutako erantzukizun zibilaren estaldura kontuan hartuko da.

b) Ibilgailuen aseguruak

Beharrezko erantzukizun zibila eta borondatezkoa ibilgailu guztietarako, propioak edo alokatuak eta lanak eragindako diren tokian erabiliko direnak. Horiek guztiek beteko dituzte aseguruari lotutako lege eta arauak.

c) Pertsonen aseguruak

Lanetara esleitutako langile eta azpikontratu guztien gaixotasunagatik eta laneko istripuagatik aseguruak, aplikagarria den legeriak xedatutakoa betez, eta langileen hitzarmenetan ezarritakoa kontuan hartuz. Legez eskatzen diren aseguru guztiak ere barne egongo dira.

d) Beharrezkoak diren beste aseguru batzuk, edo/eta aplikagarria den legeriak hala eskatuta.

Esleipendunak estaldura horiek guztiak izan beharko ditu obra behin betiko jasotzen den ondorengo sei (6) hilabeteetan. Era horretan, aipatutako epean, aseguruaren polizak kontuan hartuko ditu hirugarrenen erreklamazio guztiak.

2.- Aurrekoa kontuan izanik, esleipendunak uko egiten dio inolako erantzukizunirik eskatzeari Erakunde Kontratatzailearen aurka.

3.- Kontratuari lotutako lanei ekin aurretik, kontratistak egindako aseguruaren kopia edo egiaztagiria emango dio Erakunde Kontratatzaileari, eta horien baldintzei eta indarraldari lotutako aldaketan berri eman beharko du. Baldintza horiek aldatuko lirateke, behar izanez gero, Erakunde Kontratatzailearen iritziz.

4.- Kontratistak dokumentu honetan aipatzen diren aseguruak kontratatzen ez baditu, edo aseguruak indarrean daudela egiaztatzen dituzten agiriak hogeita hamar (30) egun naturaleko epean aurkeztu ezean, Erakunde Kontratatzaileak aseguru horiek egiaztatzeko agiriak aurkezteko eskatzen duen egunetik kontatzen hasita, ordainduta daudela argi nabarmenduz, Erakunde Kontratatzaileak eskubidea izango du antzeko estaldura izango duten aseguruak



kontratatzeko, eta horien kostuak kontratatzailearen kontura joango dira eta, hala dagokionean, Erakunde Kontratatzaileak kontratistari egin beharreko ordainketatik kenduko dira.

5.- Aseguruen inguruan kontratistari begira ezarritako eskakizun guztiak azpikontratistei ere eragingo dizkiete, betiere modu egokian eta arriskuen proportzionaltasunaren arabera, eta alor honetan hutsune edo gabeziaren bat izanez gero, Erakunde Kontratatzaileari eman beharko dizkio azalpenak.

6.- Aipatutako aseguru edo polizetan aldaketarik izanez gero, bertan behera edo berritzeak egiten badira, adibidez, kontratistak Erakunde Kontratatzaileari jakinaraziko dio. Era berean, Erakunde Kontratatzaileak hala eskatzen baldin badio, kontratistak aseguruen kontratuen kopia eta ordainduta daudela egiaztatzen dituzten dokumentuak erakutsiko dizkio. Kontratistak egiaztatzen edo bidaltzen ez baditu eskatutakoa, bere aldetik kontratua ez betetzea lekarke.

7.- Kontratuan azaltzen diren lanak egitearen ondorioz gerta litezkeen istripuak direla eta, esleipendunak ez dio Erakunde Kontratatzaileari inolako erantzukizunik eskatuko, ez ekonomikoa ez galerengatikoa, eta, hala dagokionean, Erakunde Kontratatzaileari kalte-ordaina eman beharko dio.

8.- Hirugarrenek erreklamazio edo galera handia, arazo, kalte edo lan istripu larria gertatuz gero, esleipendunak berehala jakinaraziko dio Erakunde Kontratatzaileari idatziz.

9.- Kontratistaren kargura izango diren arrisku, betebehar eta erantzukizunak ez dira mugatzen klausula honetan aipatzen diren aseguruen kontrataziora. Hori horrela, hartutako arriskuetatik erator daitezkeen betebehar eta erantzukizunak ez dira soil-soilik sinatutako aseguruen zenbatekoetara mugatuko, Erakunde Kontratatzailearen edo besteren kaltean gauzak gertatuz gero.

10.- Atal honetan aipatutako aseguru guztien kostua esleipendunak ordaindu beharko du.

11.- Esleipendunak klausula edo atal honetan aipatzen dena aintzat hartzen ez badu, kontratua ez duela betetzen ulertuko da.

4.9. Egindako lanen jabetza eta datu pertsonalaren erabilera

i- Egindako lanen jabetza

Erakunde Kontratatzailearen jabetzapekoak izango dira jasotako zerbitzua eta egindako lanei dagozkien eskubideak, baita hauen jabego industrial eta komertziala ere, Erakunde Kontratatzailearen esku egonik horien erabilera, beste inork merkaturatu, berregin edo beste era batez erabiltzeko aukerarik izan gabe Erakunde Kontratatzaileak espresuki baimentzen ez badu, eta ondorioz, honek jabegoari dagozkion agiri edo materialak ematea eskatu ahal izango du, aurrekariak, datuak eta prozedura guztiak barne.

Jabego intelektual edo industrialaz babestutako produktuak garatzea eta erabiltzeko moduan jartzea xede duten zerbitzu-kontratuek Erakunde Kontratatzailearen esku utziko dute aipatutako jabego intelektual edo industrial.

Jabego intelektualari atxiki dakizkiokeen lanak Erakunde Kontratatzaileari eskusibaz emandakoak direla ulertuko da, salbu eta alde zuzeneko aurretiko eskubideak dauden kasuetan, halakoetan emakida eskusibotasunik gabe egin daiteke eta.



Kontratua indargabetu ahal izango da, baldin eta egiaztatzen bada kontratistak kontratugaitzat jo daitekeen lana, osorik nahiz zatika, hirugarrenen esku utzi duela Erakunde Kontratatzailearen baimenik gabe.

Kontratua indargabetzeko kausa hau gertatzekotan, kontratistak kontratua bete gabe utzi duela ulertuko da ondorio guztietarako.

ii- Datu pertsonalen erabilera

Datu pertsonalen erabileratzat honako jarduera hauek hartuko dira: izaera automatizatua izango duten ala ez eragiteka eta prozedura teknikoak, zeinen bidez datuak bildu, grabatu, gorde, prestatu, aldatu, blokeatu eta deuseztatzea ahalbidetzen duten. Halaber, komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzien bidezko datu konexioak, baldin eta horiek pertsona fisikoa nor den jakin edo identifikagarria izateko bidea ematen duen edozein informazioa badute.

Kontratuan datu pertsonalen erabilera kontuan hartzen baldin bada, edo enpresa kontratistaren edo azpikontratistaren sarbidea horrelako datuetara aurreikusten baldin bada, honako araua hauek beteko dira:

1. Datuak erabiltzeko arduradunaren jarraibideen arabera erabiliko ditu datuak kontratistak.
2. Erabiliko diren datu pertsonalak kontratu hau gauzatzeko beharrezkoak direnak baino ez dira izango, eta ezin izango dira erabili bestelako xedeekin.
3. Kontratu hau gauzatzeko erabiliko diren datuak ez zaizkio inori emango. Hori horrela, kontratistak konpromisoa hartzen du datu horiek edo datu horiekin eraturako fitxategiak ez jakinarazteko, eskualdatzeko, emateko edo agerrarazteko besteri inolako bidez (ahoz, idatziz, posta elektronikoz, paperez edo sarbide informatikoz); ezta bistaratzeko ere.
4. Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikuluan xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzean arituko diren kontratistak eta gainerako eragileek isiltasuna gorde beharko dute zenbait daturen inguruan. Isiltasun gordetzeko behar hori kontratua amaitu ondoren ere izango da indarrean.
5. Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzearen ondorioz, kontratistak konpromisoa hartzen du datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko, eta horretarako, neurri tekniko, administratibo eta eraketako guztiak hartuko dituela. Ildo horretatik, honako arau hauek beteko ditu:
 - a) Lanei ekin aurretik, enpresa esleipendunak kontratazio-organoari datu hauek eman beharko dizkio: datu pertsonaletara sarbidea izango duten langile guztien izena, abizenak, zereginak eta lana egingo duten lekua. Kontratua gauzatzen den bitartean aldaketaren bat egin behar izanez gero, alta edo baja eman langileren bati, enpresa esleipendunak haren berri emango du astebeteko epean, aldaketa gertatzen den egunetik kontatzen hasita. Enpresa esleipendunak nahiz aipatutako langile horiek konpromisoa hartu behar dute idatziz isiltasun profesionala gordetzeko datu pertsonalez.
 - b) Enpresa esleipendunak segurtasun neurri egokiak hartu beharko ditu, plegu honetan azaltzen diren tratamendu zentroak, ekipoa, lokalak eta programak behar bezala erabiltzeko.
 - c) Kontratu honen xedea diren lanak bukatu eta gero, datu pertsonalak izango dituzten euskarri guztiak itzuliko ditu enpresa esleipendunak, edo horrelako datuak izango dituzten fitxategiak ezabatu edo deuseztatuko ditu. Deuseztapena era egokian egingo da, hau da, datuak berreskuratzeke aukerarik ez izateko. Fitxategiak



itzultzeko edo deuseztatzeko egiaztapena akta bidez egingo da, enpresa esleipendunaren ordezkariak eta lanen zuzendariak sinatuko duten akta horretan azalduko da ekintza hori.

6. Kontratua indarrean egongo den bitartean, Erakunde Kontratatzaileak edo EEEK kontrolak egiteko eskubidea izango du, ezarritako segurtasun neurriak, eta hala badagokio, neurri zuzentzaileak behar bezala betetzen direla egiaztatuko.

4.10. Lagapena eta azpikontratazioa

a) Kontratuaren lagapenerako legezko eskakizunei dagokionez, SPKLen 209. artikuluan zehaztutakoa bete beharko da. Dena dela ere, Erakunde Kontratatzaileak alde aurretik eta berriaz baimendu beharko du kontratuaren lagapena.

Kontratua ezin izango da laga, berau esleitzeko arrazoi erabakigarriak jatorrizko kontratistaren gaitasun pertsonal edo teknikoak izanez gero.

b) Kontratatzaileak azpikontratazioa egin nahi izanez gero, SPKLen 210. artikuluan zehazten diren xedapenak bete behar ditu. Erakunde Kontratatzaileari azpikontratu hori adierazten dion idatzian, aipatutako xedapen horiez gain, azpikontratu egikaritzeko baldintza teknikoak ere azaldu beharko dira.

Nolanahi ere, azpikontratazioek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- (i) Kontratatzaileak alde aurretik jakinarazi behar dizkio Erakunde Kontratatzaileari idatziz egin nahi dituen azpikontratu guztiak, azpikontratazio bakoitzari lotutako kontratuaren aldea adieraziz.
- (ii) Erakunde Kontratatzaileari alde aurretik onartu behar du.

Hala ere, jakinarazitako azpikontratazioa ez onartzeko eskubidea bere gain hartzen du Erakunde Kontratatzaileak, baldin eta proposatutako azpikontratazioaren gaitasun teknikoa nahiko egiaztatuta ez badago, edo azpikontratu gauzatzeko baldintza teknikoak aski bermatuak ez badaude.

Azpikontratazioak jatorrizko kontratistaren mende geratuko dira eta jatorrizko kontratista hori izango da, Erakunde Kontratatzaileari dagokionez, Plegu honetan eta kontratuan zehazten diren betebeharren ardura izango duena.

4.11. Behin betiko jasotzea

Obra behin-behineko jasotzeko izapideak abian jarriko dira esleipendunak kontratuaren arduradunari, Erakunde Kontratatzaileak hautatutakoari, honako hau jakinarazten dionean:

- (i) Obra **I. eranskinean** azaldutako zehaztapen teknikoen eta esleipendunaren eskaintzan adierazitakoaren arabera amaitu dela.
- (ii) Akatsik aurkituz gero, den-denak konponduta daudela.
- (iii) Indarrean dagoen legeriak eskatzen duen dokumentazio guztia prestatuta dagoela.
- (iv) Behin-behineko instalazioak kendu direla eta lekua behar bezala garbitu dela.

Hamabost (15) eguneko epea igaro baino lehen, kontratuaren arduradunak obra aztertuko du eta egiaztatuko du obrak arau edo baldintza teknikoak eta **I. eranskinean** esaten dena betetzen dituela; baita eskaintza eta kontratu honetan jasotzen dena ere.



Ikuskapena edo azterketa positiboa bada, kontratuaren arduradunak obra behin betiko jasotzeko akta egingo du, ale bitan, eta Erakunde Kontratzaileari eta esleipendunari bidaliko die kopia bana. Onarpen horrek izaera loteslea izango du berme-aldiak hasteko.

Kontratuan azaltzen diren lanetan kontratuaren arduradunak akatsik aurkituz gero, ordea, esleipendunari jakinaraziko dio eta honek hamabost (15) eguneko epean, gehienez ere, konpondu beharko lituzke akatsak.

Goraxeago adierazi den epean esleipendunak aipatutako akatsak konponduko balitu, kontratuaren arduradunak obra behin betiko jasotzeko akta egingo luke, ale bitan, eta Erakunde Kontratzaileari eta esleipendunari bidaliko die kopia bana, berresteko. Onarpen horrek izaera loteslea izango du berme-aldiak hasteko.

Prestazio akasdunei lotutako arazoak adierazitako epean konpondu ezean, Erakunde Kontratzaileak bertan behera utz dezake kontratua eta kalte-ordainengatik eskabidea egin dezake. Esleipendunak ordura arte jasotako kopurua eta %20 gehiago izango da kalte-ordainaren zenbatekoa.

4.12. Hizkuntza baldintzak

Enpresa esleipendunak kontratu honi lotutako jarraibideei buruzko eskuliburuak edo ondasunen eta produktuen dokumentazioa EAeko hizkuntza ofizial bietan emango ditu. Horren barruan sartzen dira software guztien testuzko eta entzunezko interfazeak.

Administrazio kontratu-egilearekiko harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratua gauzatzeari begira, hauxe da “normalean euskara erabiltzea”: a) ahozko komunikazioetan, euskaraz dakien langileek euskaraz egingo dute, hasiera baten, kontratua gauzatzeko zereginak direla eta administrazio kontratu-egilearekin harremanetan jartzen direnean.

Administrazio kontratu-egilea euskaraz zuzentzen ari den langile bati eta horrek hizkuntza behar bezala menperatzen ez badu, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu euskara behar bezain ondo dakiten langileak edo bitartekoak, kontratuaren ondorioz administrazioarekin burutu beharreko harremanak euskaraz izan daitezen, eta b) komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

4.13. Kontratuaren arduraduna

Izaera teknikoko erabakiak hartzerakoan, Erakunde Kontratzaileak kontratuaren arduraduna izenda dezake, kontratistak egindako lanen gaineko aholkularitza eta ikuskapen lanak egin ditzan, eta kontratazio-organoaren edo honek ordezkariatzat aukeratzen duen pertsonaren eskumena izango da kontratuaren arduradunak kontratuaren garapenaz egindako jarraipenaren ondoriozko erabakiak hartzea.

Era berean, aintzat hartuko ditu Plegu honetan egotzitako zereginak. Kontratazio-organoak kontratuaren arduradunaren esku utz ditzake kontratuaren burutzapenaz dituen eskubide eta ahalmenak, guztiak edo batzuen batzuk.

4.14. Kontratuaren iraungipena

Amaitu delako, bete delako edo eten delako iraungiko da kontratua.



Kontratua iraungitzeko arrazoiak baldintza-orri honetan, Kode Zibilean eta SPKLen 206. artikuluan zehazten direnak izango dira. Baita honako arrazoi hauek ere:

- (i) Baldin eta kontratua gauzatzeko garaian, hirugarrenen ekintzen ondorioz, kontratua gauzatzea ezinezkoa balitz ikuspuntu tekniko nahiz ekonomikotik, bidezkoa litzateke, Erakunde Kontratatzaileak egokitzat joz gero, kontratua indargabetzea, eta ondorioz, kontratistari Erakunde Kontratatzaileak eskatu eta bere horretan gauzatutako lanak ordainduko litzaizkioke soilik, arrazoi honengatik Erakunde Kontratatzaileari kalte-ordaina eskatu edo erreklamazioa egitea bidegabekoa delarik.
- (ii) Kontratistaren berandutza kontratuan adierazitako lanak egiteko epea betetzerakoan.
- (iii) Kontratuaren gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea.

Ezarrিতako baldintzen arabera arrazoi hauetako edozein gertatuz gero, Erakunde Kontratatzailea baimenduta egongo da kontratua indargabekotzat jotzeko, eta Plegu honen eta indarreko araudiaren arabera dagokion kalte-galeren ordaina eskatu ahal izango du, betearazpen subsidiarioaz baliatzeko aukera barne, egin gabe geratu diren betebeharrak gauzatuz edota lanak gauzatzen jarraituz, berez edo egokitzat jotzen dituen pertsona edo enpresen bitartez, kontratistaren kontura.

5. BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK

5.1. Epeak

Besterik adierazten ez baldin bada, Plegu honetan aipatzen diren epeak egun naturalei dagozkie.

5.2. Aldagaien onarpena

Plegu hionen karatularen **N Atalean** zehaztuko da aldagaiak onartzen diren al ez. Onartzen baldin badira, aldagaiek adierazi beharko dute zein elementuri eragiten dioten eskaintzaren barruan.

5.3. Publizitatearen gastuak

Lehiaketa honi lotutako publizitate gastu guztiak (hala badagokio, egunkarrietan argitaratuko diren iragarkiak barne), enpresa esleipendunak ordainduko ditu, Plegu hionen karatularen **M Atalean** hala adierazten denean. Gastu horiek atal horretan zehaztuko den gehieneko zenbatekoa izango dute eta Erakunde Kontratatzaileak enpresa esleipendunari fakturatuko dizkio, kontratua formalizatu aurretik.



I. ERANSKINA

ZEHAZTAPEN TEKNIKOEN PLEGUA, GILTZA ESKUAN ERAKOA, BI EGUZKI INSTALAZIO FOTOVOLTAIKO HORNITU, JARRI, ABIARAZI ETA MANTENTZEA KONTRATATZEKO

Arauzko zehaztapen teknikoak

- (i) Eguzki-instalazio fotovoltaikoa osatzen duten atal guztiek bete beharko dituzte aplikagarriak izan dakizkiekeen arau eta lege oro.
- (ii) Eguzki-instalazio fotovoltaikoa sarera konektatzeko behar den ekipa osagarriak bete beharko du 1663/2000 Errege Dekretuak xedatutako betekizunak.

Alderdi teknikoak

- (i) Eskaintzetan panel kristalinoak zein geruza finekoak aurkez daitezke.
- (ii) Instalazioen gehieneko gaindimentsionamendua ez da izango alderantzikagailuen irteerako potentzia baino %20 handiagoa, eskatutako potentzia eta enpresa elektriko banatzaileak onartua.
- (iii) Behe-tentsioan jarduteko, sare elektrikora konektatzeko guneak eguzki plantak kokatuta egongo diren eraikin berean izango dira. Halaber, gainerako ekipa osagarriak (alderantzikagailuak, kableak, neurria...) erakin horretan izango dira.
- (iv) Paneli eusteko egiturak materialak egokien bidez fabrikatuko dira; batez ere, muturreko klimatologiari aurre egiteko, bai kalitate aldetik (presentzia, tratamenduak, herdoilaren aurkakoa...), bai kontrako egoera atmosferikoen aldetik.

Salbuespenak

Azkenean, baldin eta lan osagarriak egin beharko balitz, adibidez, interkonexio elektrikoren bat gune batean eguzki planta kokatuko den erakinetik at, lan horiek aparte kontratatuko lirateke.

Instalazioaren ezaugarriak

Eranskin honen amaieran eguzki instalazio fotovoltaikoa jarriko den eraikinen ezaugarriak biltzen dituen fitxa azaltzen da.

Izapide administratiboa

Behin betiko esleipendunak bere gain hartu beharko du kudeaketa administratiboa, kupoa behin betiko esleipena egiten den unetik aurrera.



Mantentze prebentiboaren baldintza teknikoak eta maiztasuna

Mantentze prebentiboa pertsonal tekniko kualifikatuak egingo du, eta horren arduradun bakarra esleipenduna izango da.

Instalazioen mantentze prebentiboaren barruan, instalazio bakoitzera hiru (3) bisita egitea urtean, urtarrilean, maiatzean eta irailean, aurreikusten da. Bisita horietan honako jarduerak hauek egingo dira:

- Babes elektrikoaren egiaztapena.
- Moduluen egoeraren egiaztapena: jatorrizko egitasmoarekin bat datorren egiaztatzea eta konexioen egoera aztertzea.
- Alderantzikagailuaren egoeraren egiaztapena: funtzionamendua, seinale-lanparak, alarmak...
- Kable eta terminalen egoeraren egiaztapena (lur hartuneko kableak eta bornen estutzea barne).
- Bisita bakoitzean txosten tekniko bana egitea; bertan, besteak beste, instalazioen egoera eta izandako gorabeherak jasoko dira. Horrekin batera, elektrizitatea saltzeko kontagailuan neurtutako ekoizpen metatua ere azalduko da.
- Egindako mantentzeari lotutako eragiketak mantentze liburu batean jasotzea. Horretan, mantentze lanetan arituko diren langileen datuak idatziko dira (izena, titulazioa, enpresaren baimena).
- Eguzki-instalazioen eragiketari jarraipena egitea hilero, alderantzikagailuei lotuko den monitorizaio sistemaren bitartez..

Laburbilduz, mantentze prebentibo planaren barruan, zenbait eragiketa egingo dira, esate baterako, ikuskapenak, jardueren egiaztapenak eta abar. Hori guztia instalazio bakoitzean aplikatuz gero, instalazioak ondo funtzionatzeko, zerbitzu egokia emateko, babesteko eta irauteko lagungarria litzateke.

Instalazioaren mantentze zentroa


Era berean, instalazioan akats edo matxurarik gertatuz gero, eta haren konponketa edo errebisioa kontratatutako bermearen mantentze zuzentzailean sartuta baldin badago, horretaz arduratzen den enpresak hamabi (12) orduko epean, gehienez ere, joan beharko du instalaziora, akats edo matxuraren berri ematen dioten unetik, eta horrek plantaren funtzionamenduari eragiten badio. Akatsak edo matxurak bete-betean eragiten ez badio plantaren funtzionamenduari, aldiz, berrogeita zortzi (48) orduko epean, gehienez ere, joan beharko da instalaziora.

MANTENTZE ZENTROA
Enpresaren izena:
Helbidea:
Harremanetarako pertsona:
Telefonoa:
Posta elektronikoa:

EZAUGARRIEI BURUZKO FITXA
SUBILLABIDEKO INDUSTRIALDEKO EGUZKI PLANTA

KOKALEKUAREN EZAUGARRIAK

- Estalkia xafla-sandwich motakoa, ia guztiz zapala (makurdura 3,5°, gutxi gorabehera);
- Orientazioa hego-ekialdera (desbiderapena 85° mendebaldera).
- Estalkiaren inguruan harresitxo bat dago, 0,80 m inguruko altuera duena.



EGUZKI PLANTAREN ESKAKIZUN TEKNIKOAK

- 100 kW-eko potentzia izendatua.
- Eguzki eremuaren gehieneko potentzia: potentzia izendatua baino %20 handiagoa.
- Panelak eraikinaren uhaletan ainguratutako egitura metalikoetan jartzea proposatzen da, hegoaldera orientatuta, gehienez 30° makurtuta, eta kanpoko aldera ahalik eta gutxien emanez, haizearen eraginez sor daitezkeen gainkargaren arazoak saihesteko.
- Alderantzikagailuaren kokalekua: eraikinaren barruko aldean ezinezkoa balitz, kanpoko etxola batean jarriko litzateke (horren aurrekontua eskaintza honetatik kanpo legoke).
- Sarera konexioa behe-tentsioan egingo da A eraikinaren espaloian (horren aurrekontua eskaintza honetatik kanpo legoke, eraikinetik konexio-gunera).

EZAUGARRIEI BURUZKO FITXA
ZAISA INDUSTRIALDEKO EGUZKI PLANTA

KOKALEKUAREN EZAUGARRIAK

- Hormigoizko estalkia, ia guztiz zapala (makurdura 3°, gutxi gorabehera);
- Orientazioa hego-ekialdera (desbiderapena 38° mendebaldera).
- Estalkiaren inguruan harresitxo bat dago, 0,40 m inguruko altuera duena.



EGUZKI PLANTAREN ESKAKIZUN TEKNIKOAK

- 100 kW-eko potentzia izendatua.
- Eguzki eremuaren gehieneko potentzia: potentzia izendatua baino %20 handiagoa.
- Panelak egitura metalikoen gainean jartzea proposatzen da (hormigoizko bankadetan, kasu) hegoaldera ondo orientatuta, edo eraikinaren zeharkako noranzkoari jarraiki, gehienez 25-30° makurtuta,.
- Alderantzikagailuaren kokalekua: eraikinaren barruko aldean ezinezkoa balitz, kanpoko etxola batean jarriko litzateke (horren aurrekontua eskaintza honetatik kanpo legoke).
- Sarera konexioa behe-tentsioan egingo da eraikinaren kanpoko aldean (horren aurrekontua eskaintza honetatik kanpo legoke, eraikinetik konexio-gunera).

II. ERANSKINA
LIZITATZAILEAREN ARDURA-ADIERAZPENA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOekin
KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ DUELA EGIAZTATZEKO

[...] jaun/andreak, ondorio hauetarako honako helbidea duenak: [kalea, zenbakia, solairua eta P. K.], [...] NAN, bere izenean arituz, edo “[...]” aren izenean arituz, honako helbide duena [kalea, zenbakia, solairua eta P. K.], [...] telefonoa eta I.F.K.:

ADIERAZTEN DUT: Egiaztatzen dut ez nik, ez ordezkutzen dudan merkataritza-sozietateak ez dugula urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. eta 50. artikuluetan araututako kontratatzeiko debekurik. Halaber, indarrean dauden xedapenekin bat etorrituz, egiaztatzen dut enpresak egunean betetzen dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Hori guztia egiaztatzen duten agiriak eta dokumentuak aurkezteko konpromisoa hartzen dut kontratua formalizatu baino lehen, horren esleipenduna izango banaiz.

[...]n, 2011ko []aren(e)an.

[*Enpresaren/lizitatzaiaren izena*]
Ahalordez

III. ERANSKINA

BANKU-ABALAREN EREDUA (BEHIN BETIKO BERMEA)

[...] bankuak, (aurrerantzean, “**Bankua**”) eta haren izenean eta ordezkartzan [...], egintza hau egiteko bezainbat aginpide duenak, [...] notarioaren aurrean, [...] protokolo-zenbakiarekin, [...] egunean emandako ahalmenaz baliaturik, eta aldatu ezta kendua ere izan ez dena.

ABALATZEN dio [...] sozietateari (aurrerantzean, “**Sozietatea**”), lehen eskarian eta era solidarioan, .I.F.K.: [...], eta [...] helbidea duenari, [...], Erakunde Kontratatzailerean aurrean (aurrerantzean, “**Onuraduna**”), .I.F.K.: [...], eta [...] helbidea duena, [...] euroko gehieneko zenbatekoraino (aurrerantzean, “**Bermatutako zenbatekoa**”), [kontratuaren izena idatzi] xedea duen kontratua modu egokian garatu eta gauzatzeko, [...] datarekin Sozietateak eta Onuradunak sinatutako kontratua, eta Bankuak ezagutzen duela adierazita.

Abalaren baldintzak hauexek dira:

- (i) Bankuak berriaz uko egiten die ondasunen ordenari, eskusioari eta zatiketari; baita defentsa agertarazteko era guztiei ere.
- (ii) Abal honek izaera abstraktua du: beraz, Onuradunak ez du zertan adierazi edo justifikatu bermea gauzatzeko dituen arazoak, eta bermearen kontura ordainketaren eskariaren aurrean, Bankuak ezin izango du oztopo edo eragozpenik jarri, Sozietateak jar ditzakeen eragozpenak edozein direla ere.
- (iii) Onuradunak eskatzen duen diru kantitatea ordaindu beharko dio Bankuak bost (5) egun naturaleko gehieneko epean, idatziz edo beste modu batez [...] helbidera egiten den eskariaren egunetik kontatzen hasita.
- (iv) Onuradunak eskatuko duen diru-kantitatea ordainketa batean edo bitan egingo dio Bankuak, onuradunak esango dion eran; betiere Bermatutako zenbatekoa gainditzen ez bada.
- (v) Onuradunak emandako bankuaren kontu-korrontean egingo dira ordainketak, kenketarik gabe, honako arazoia hauengatik: zergak, eskubideak, karguak, konpentsazioak, erreklamazioak, eta oraingo edo etorkizuneko kenketa edo atxikipenak.
- (vi) Abal honen iraupena mugagabea izango da, Onuradunak baliogabetzeko baimena eman arte, idatzizko adierazpen baten bidez.
- (vii) Berme hau Espainiako zuzenbidearen arabera arautzen da. Gerta daitezkeen auziak erabakitzeke bi aldeak jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mende. Era berean, berriaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketen bestelako jurisdikzioei.

Berme hau Bermeen Erregistro Ofizialean erregistratu da, [...] zenbakiarekin, 20[](e)ko []aren(e)an.

[Lekua eta eguna]

[Erakundearen izen soziala]

[Ahaldun(ar)en sinadura]

IV. ERANSKINA
FORMULA BIDEZ EBALUATU AHAL DIREN IRIZPIDEEN DOKUMENTAZIOA
GAUZATZEKO EPEA, PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA MANTENTZEARENA
() LOTEA

[...] jaun/andreak, ondorio hauetarako honako helbidea duenak: [kalea, zenbakia, solairua eta P. K.], [...] NAN, bere izenean arituz, edo “[...]” aren izenean arituz, honako helbide duena [kalea, zenbakia, solairua eta P. K.], [...] telefonoa eta I.F.K.: [...].

ADIERAZTEN DU

- I.** Erakunde Kontratatzaileak deitutako [kontratuaren izena idatzi] xedea duen kontratua arautzen duen klausula administratibo berezien plegua eta gainerako dokumentazioa ezagutzen dituela.
- II.** Kontratu hau sinatzeko, ordezkatzan duen enpresak indarrean dagoen legeriari lotutako betebeharrak eta eskakizun guztiak betetzen dituela.
- III.** Kontratu honen xedea diren eguzki instalazio fotovoltaikoak gauzatze aldera, **gehieneko epea** [...] hilabetekoa eta [...] astekoa izango da [adierazi letraz eta zifraz].
- IV.** Kontratu honen xedea diren eguzki instalazio fotovoltaikoak gauzatze aldera, honako **diru-proposamena** hau egiten du: ... euro [adierazi letraz eta zifraz], gehi BEZari dagokion [...] euro [adierazi letraz eta zifraz]. Prezio horren barruan kontzeptu guztiak sartzen direla ulertuko da, tasak eta zergei lotutako gainerako gastuak barne.
- V.** Kontratu honen xedea diren eguzki instalazio fotovoltaikoak egiteko, **Wp bakoitzaren preziorako** proposamen hau egiten du: ... euro [adierazi letraz eta zifraz], gehi BEZari dagokion [...] euro [adierazi letraz eta zifraz]. Prezio horren barruan kontzeptu guztiak sartzen direla ulertuko da, tasak eta zergei lotutako gainerako gastuak barne.
- VI.** Instalazioaren **mantentze prebentiboa** aurrera eramateko, ondoko taulan ageri den proposamen ekonomikoa egiten du. Prezio horren barruan kontzeptu guztiak sartzen direla ulertuko da, tasak eta zergei lotutako gainerako gastuak barne.

MANTENTZEA			
	BEZ gabe	BEZ	GUZTIRA
Mantentzearen prezioa urtean, instalazioaren berme aldian			
Mantentzearen prezioa urtean, instalazioaren berme alditik at			
Mantentze kontratuaren prezioan, bermetik kanpo dauden elementuen mantentze zuzentzaileari lotutako eragiketak badira			
-Lekualdaketei dagozkien gastuak sartzen dira? (bai/ez)			
-Langileei dagozkien gastuak sartzen dira? (bai/ez)			

[...]n, 2011ko []aren(e)an.

[Enpresaren/lizitatzzailearen izena].
 Ahalordez.

*Aldi baterako enpresa-elkartea bada, hori osatzen duten kide guztiek egingo dute proposamena.

Ohar garrantzitsua: eranskina honen hurrengo orrietan proposamen ekonomikoren zehaztapenak azalduko dira; baita mantentzearen lan eta ezaugarrienak ere.

V. ERANSKINA

ENPRESA LIZITATZAILEAREN OINARRIZKO DATUAK

Enpresa lizitzailearen izena	
IFK / IFZ Jarduera nagusia	
Helbide soziala	Zentrala:
	Bulegoak EAEn:
Harremanetarako	Harremanetarako pertsona: Helbidea: Tel.: Faxa: e-mail:
Langile-kopurua	Guztira:
	EAEn:
Negoio bolumena	Guztira:
	EAEn:
Akziodunen edo enpresa taldearen izena Kudeaketa sistemen ziurtapena (ISO, UNE edo baliokideak)	

VI. ERANSKINA
ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOA KONFIDENTZIAL IZENDATZEKO EREDUA
(hautazkoa aurkeztea)

[...] jaun/andreak, ondorio hauetarako honako helbidea duenak: [kalea, zenbakia, solairua eta P. K.], [...] NAN, bere izenean arituz, edo “[...]” aren izenean arituz, honako helbide duena [kalea, zenbakia, solairua eta P. K.], [...] telefonoa eta I.F.K.: [...].

ADIERAZTEN DU

(*) zenbakidun kontratazio-espeditako (*gutun-azala zein den zehaztu*) gutun-azalean jasotako agirietatik, jarraian aipatzen diren informazioak eta eskaintzako alderdiak konfidentzialak direla, merkataritzako sekretuekin edo sekretu teknikoekin lotura izateagatik. Hauek dira, beraz, agiri konfidentzialak:

[...]

Adierazten du, baita ere, agiri horiek konfidentzialak direla ondoko arrazoi hauengatik:

[...]

[...]n, 2011ko []aren(e)an.

[*Enpresaren/lizitazailearen izena*].
Ahalordez.